


TORIBIO ALZAGA

BURRUNTZIYA

BERNAIÑO'REN LARRIYAK

T X I B I R I B I R I

SAN TOMAS'EKO FERIYA



AUSPOA LIBURUTEGIA

JB-903

9116

BURRUNTZIYA

**BERNAIÑO'REN LARRIYAK
TXIBIRIBIRI
SAN TOMAS'EKO FERIYA**

AUSPOA LIBURUTEGIA

29

COLECCION AUSPOA

Administración: Plaza de Santa María, 2-Tolosa
Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala. S.J.
Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 200 peseta Atzerrian: 275 peseta
Ongilleak: 350 Ale bakarra: 25

T. Alzaga

BURRUNTZIYA

BERNAINO'REN LARRIYAK
TXIBIRIBIRI
SAN TOMAS'EKO FERIYA

AUSPOA LIBURUTEGIA

Depósito Legal S. S. 940/63
Número Registro 3245/63

ARKIBIDEA

<i>Burruntziya</i>	9
<i>Bernaiño'ren larriyak</i>	47
<i>Txibiribiri</i>	81
<i>San Tomas'eko Feriya</i>	109

BURRUNTZIYA

"Euskalerrriaren alde" aldizkarian 1931-garren urtean argitaratua.

"Izarra" zeritzaion sortan 23-garren alean argitaratua.

IRUDIGILLEAK

Mañaxi

Xefeina

Talo

Joxe-Joakin

Koxme

Iruditegia erri txikiko etxe bateko gela nagusia. Atzean sarrerako atea. Ezker-eskuitan ateak. Atzeko orman asara (cómoda) bat, jostalluz eta antzezkiz betea. Alkiak batean eta bestean zabalduak. Alkietako bat txiki-xamarra.

I

MAÑAXI ta KOXME

(Mañaxi etxekoandria da. Berrogei ta zortzi urte ditu; arpegi zorrotza ta izakera zorrotzagoa. Betaurreko aundi batzuek begietan dauzka, ta alki txikian exerita braka batzuei arabakiak jartzen ari da. Koxme, bere aldamenean zutik dago; ogei ta iru urteko mutil gaztia da.)

Koxme.—¿Beaz ezetzian zaude?

Mañaxi.—Ezetzian irauten degu.

Koxme.—Zure alaba nik maite detanarekin...

Mañaxi.—Emazteaz jabetzeko ez da aski naitasuna.

Koxme.—Bere begietatik ikusiko nuke nik.

Mañaxi.—Jan ere bere abotik naiko zenuke noski; ta ori da guk iñola ere ezin eraman deguna.

Koxme.—Mañaxi...

Mañaxi.—Zure buruentzako lain ezin sortu dezu, ¿ta emazia biar dezula?

Koxme.—Nere bearrak nere lanarekin osatzen ditudala erri guzia jakiñen gañian dago.

Mañaxi.—Ez dakit ba; gurasuak utzitako ontasunetatik ez det uste asko-askorik gelditzen zaizunik.

Koxme.—Burruntzi bat gelditzen zait.

Mañaxi.—Ori da. Ta zuk orain biarke zenuke noski, nere alabak ollaxkuak eramatia zure burruntzi orretan erretzeko.

Koxme.—Ez dizut nik ollaskorik eskatzen. Alaba bakarrik eskatu det.

Mañaxi.—Ez dezu beintzat egakirik, lumarik ere izango.

Koxme.—Ez ta bear ere. Ondo dakizu nere gurasuak utzitako ontasunetatik eten bearran arkitu banaiz, luzaroan gaxo egon naitzelako izan dala. Badakizu, osasunez ondo izan nitzan bitartian gurasonkarria zuzen gordetzen nuela; sendatu naizenetik lanaren

bitartez aurrera ateratzen naizela. Badakizu...

Mañaxi.—Nik dakitana da, burrunntzi bat besterik ez dezula. Ta etzait iduritzen neskatxa bat eskatzeko, burrunntzi bat naikua izan litekenik.

Koxme.—Ez det burrunntzia bakarrik eskeintzen; biotz bat ere eskeintzen det.

Mañaxi.—Sartu zazu ba burrunntzian, ta ia nolako jakia sortzen dezun sendi, pamili bat mantentzeko.

Koxme.—Zuk bai, Mañaxi, burrunntzia sartzen didazula zure esaera zorrotzakin.

Mañaxi.—Egia beti zorrotza izan oi da.

Koxme.—Len esaten zenidana ere egiya izango zan noski, baña ez zuen orrelako zorrotzasunik. Orduan zerorrek laguntzen zenidan zure alabarekin nerabilzkien asmoe-tan.

Mañaxi.—Orduan burrunntziya baño zer edo zer geyago bazenuelako.

Koxme.—¿Baña, zure alaba, nerekin edo nere ontasunakin ezkondu nai zenuen?

Mañaxi.—Zurekin, zure gurasuak utzitako ontasunen jabe ziñan bitartian. Baña, orain burrunntzi bat besterik ez dezu ta...

Koxme.—Egiya, burrunntzi bat besterik ez. Nere amak, ez dakit zergatik, baña, bu-

rruntzi orri zale aundiya ziyon. Aurrekoen aurrekoak utzitakoa zala esan oi zuen. Ez du beaz nolanaikoa izan bear. Baña, dana dala, egiya aitortu dizut: ez det besterik ezer.

Mañaxi.—Aurrekuak edo atzekuak utziya, ori beti burrunziya; ta ez daukat nik alaba burrunzi batekin ezkontzeko.

Koxme.—Burruntziarekin ez: nerekin ezkontzia eskatu dizut.

Mañaxi.—Berdin zait; zuri begiratzen dizut, eta ez dizut ikusten... burrunzi bat besterik.

Koxme.—Nai ez dezulako: garbi azaltzen dizkitzut nere zintzotasuna, nere lanerako grifa, zure alabaganako naitasuna...

Mañaxi.—Ba, ba, ba... Alperrikako itzak. Uskeriyak. Oyek guziyak eltzeari koipe gutxi emango diote.

Koxme.—Eltzeak ez du koipea bakarrik bear; mamiya ere bear du. Senar-emazteen arteko mamiya, beren zintzotasuna ta alkar-ganako maitasuna da.

Mañaxi.—Bai; ta mami ori berriz ametsetako lukainka besterik ez.

Koxme.—¿Lukainka deritzaizu?

Mañaxi.—Eltzeak ez du koipea bakarrik

bearko, baña, esaera zarrak dion bezela: "nun zopa, an salda".

Koxme.—Ikusten det zuretzat ez dala koi-pia, lukainka, zopa ta salda besterik.

Mañaxi.—Badakizu: santu guztiyak oliyo-koyak; eta santuak oliyua bezela guk ere bizikaia biar.

Koxme.—¿Eta, uste dezu nere lanarekin ez detala sortuko nere emazteak biar duen bizikaia?

Mañaxi.—Ori, asmo bat, uste bat besterik ez da. Eta asmo ta usteakin ez degu ezer egiten. Zuk, ezkontzarako, gauza bat bakarra dakarzu: burrunntzi bat. Beaz, zu, ez zera nere alabaren mallan jartzen.

Koxme.—¿Eta len, bai?

Mañaxi.—Len, bai. Baña, orain, zu jexti egin zera, ta nere alaba herriz, goyen, zuk ezin atxitu dezun goitasunean gelditu da. Beaz, zuk, beragoko andregai bat arkitu bear dezu; nere alabak goragoko senargai bat. Bakoitzak bere mallan.

Koxme.—¿Orduan, len esandako guziya, lengo eskeñiak, lengo agintzak alperrikakoak dira?

Mañaxi.—Alper-alperrikakoak. Mallaz aldatu zerate, beaz itzaz eta eskeñiaz ere aldatu bear dezute. Gañerako artu-emanetan

gertatzen dan bezela. Txerri batekin tratua egiten dezu, baña pixatzeakoan uste baño gutxiago pixatzen badu, esan baño gutxiago ere ordaintzen diozu.

Koxme.—¿Baña, zuk, ezkontza txerri-tratua dala uste al dezu?

Mañaxi.—Anima salbo, txerri-tratu jator-jatorra.

II

LENGUAK eta TALO

(Talo, 55 bat urteko baserritar kankallu bat da. Oso zarpalla. Laguna marruskatu gabe ez daki itzegiten. Atzean zalaparta dari-yola oju egiten du.)

Talo.—¿Koxme emen al da? *(Atzeko atetik sartuaz)* ¡Banekiyen nik! Ona emen bera. Ta baita Mañaxi zarra ere, oitu bezela brakak magalian, baña jostorrazarekin brakai baño sui-gayari jostura geyago egiñaz. Ez dizu zuri iges egingo ez. ¡Arraye pola! *(Mañaxi marruskatzen du. Au oso asarretzen da)*

Mañaxi.—¿Geldirik egongo al zera? ¡Kaiku, kirtena! Jostorrazarekin zuri egingo dizut nik zarrastada ederra geldirik ez bazaude.

Talo.—(*Koxme marruskatuaz*) Ire billa etorri nak. Beriala, bere beriala juateko. Alkarrekin juan biar diagu.

Koxme.—Utzi nazazu pakian.

Talo.—(*Mañaxi'ri*) ¿Ikusten? Zure ondotik ez du alde egin nai. ¿Zer tirakilloi dezu mingain ortan?

Mañaxi.—Utikan, alproja alena.

Talo.—Senarra bezela, sui-gaya ere oso menpetu dezu. Zure atzaparretan erortzen dan gizasemea, egoan egiteko kemenik gabe uzten dezu. ¡Au katramillosa, au!

Mañaxi.—Zaude ixilik, astu ori. Talo izena, ta Talo izana. (*Mañaxi altxatzen da*)

Talo.—(*Koxme'ri*) Beriala juan biar diagu. Prantzez eo ingeles, eo mutur gorri oye-tako bat zai daukak.

Koxme.—Nik ez det oyekin zer ikusirik.

Talo.—Ez, noski; bazekiagu ik Mañaxi'rekin dekala zer-ikusiya... (*Mañaxi'ri*) ta Mañaxi zapelaitz onek auka bere atzaparretan luma gabeko txoriya bezela estututa.

Mañaxi.—Zuaz nere begiyen aurretik.

Talo.—Onekin juan biar det ordia.

Mañaxi.—Zuazte ba biyok eta pakia emazute.

Talo.—Ori da pulamentuz jarduntzia. Bai: zu beti emakume mamuxel eta zirrikituna.

Mañaxi.—¡Astua!

Talo.—(*Koxme'ri*) Entzun dek. Beriala juañ biar diagu.

Koxme.—Ez detala ayekin ezer ere biar.

Talo.—Ayek bai ordia irekin.

Koxme.—Nik, ez.

Talo.—Iregana etortziagatik, nik ezer esan gabe ikaska! pexta bat eman ziañ eta, ia.

Koxme.—Gorde bada.

Talo.—Noski; baña irekin juañ biar diat ordia. (*Mañaxi'ri*) Nerekin juañ biar du-ta.

Mañaxi.—(*Koxme'ri*) Eraman zazu emendik euli mando au.

Talo.—¡Bai, ba! Pexta bat eman ziañ eta: ikaska geo!

Koxme.—Juañ biar bada juango naiz; baña, alde egiñ baño len, zure azkeneko itza entzun nai nuke.

Mañaxi.—Nere azkeneko itza badakizu: bakoitza bere mallan; ta bat jexten danean, bere asmoetan ere jetxi egin bear du.

Koxme.—Eta igotzen danian, igo...

Mañaxi.—Bai, noski.

Koxme.—Ondo da. (*Atzera juañaz*) Beste bat arte.

Talo.—(*Mañaxi marruskatuaz*) Orain ere

zu, beti bezelako mazuztxori ta txirripix-
tiña.

Mañaxi.—Utikan, asto nardagarriya.

Talo.—(Atzeko atetik) ¡Pilinpustrera!

(*Koxme ta Talo atzeko atetik juaten dira.*)

III

MAÑAXI ta XEFEINA

Mañaxi.—¡Gizona orren astua izatia! Lau ankekuak badira ori baño zentzu geyagokuak. Nere onetatik atera nau.

Xefeina.—(Mañaxi'ren alaba da. Ogei ta bi-iru urteko neskatxa gaztia. Oso txotilla dirudi. Moja-itxura zerbait ere badu, baña, mutil gazte gogokua aukeratu ezkerro gogotik artuko lukena. Eskuiko lenengo atetik sartzen da). Ama: ¿bakarrik al dago?

Mañaxi.—Ez naiz nai bezin laster bakarrik gelditu. ¡Ez, orixe! Ez det berialakoan biali.

Xefeina.—¿Koxme?

Mañaxi.—Koxme bat, bai; ta beste aku lamendi zarra, Talo, asto kirten ori, bestia. (Gogoratu utsarekin sutan jartzen naiz.)

Xefeina.—¿Koxme biali du beaz?

Mañaxi.—Biali, bai; etxe ontan zer egiñik ez duelako.

Xefeina.—Orra; nerekin ezkondu biar zuela ta...

Mañaxi.—Ez da ba zurekin ezkonduko.

Xefeina.—¿Zergatik, ordia?

Mañaxi.—Nik nai ez detalako.

Xefeina.—Moja juango naiz orduan.

Mañaxi.—¿E?

Xefeina.—Moja juango naiz, bai; moja.

Mañaxi.—Nik nai ez badet, ez zera juango ez moja ta ez praile.

Xefeina.—¿Zer egin biar det orduan?

Mañaxi.—¿Zer egin biar dezun?... (*Len josten ari zan brakak erakutsiaz*) Braka abei arabaki abek jarri. Senarra izaten dezunerako braka zarrak tajutzen jakitia ondo etorriko zaizu.

Xefeina.—¿Baña, moja juaten banaiz?

Mañaxi.—Moja juaten bazera, brakak tajutzen ez dezu noski lanik izango, ta kokotzeko bixarrak kentzen ikasi biarko dezu.

Xefeina.—Nik Koxme nai nuen.

Mañaxi.—Ez dezu ba Koxmeik izango.

Xefeina.—Orduan moja juango naiz.

Mañaxi.—Orduan nik agintzen dizudana egingo dezu, ta orain ere bai; ta berriketa

gutxirekin braka oyek tajutu, moja juan baño len lenbiziko astiñaldiya artu nai ez badezu.

Xefeina.—Moja juango naiz bada...

Mañaxi.—Moja, bai. Zu Koxme'rekin juango ziñake moja; baño ementxe gelditu biar dezu aitaren braka zarrak tajutzen.

Xefeina.—Ez naiz bada geldituko.

Mañaxi.—Berriketa gutxi gero neri. Braka oyek tajutu berriz esan baño len.

Xefeina.—(*Exeri ta brakak artuaz*) Moja juango naiz bada.

Mañaxi.—Ori, ikusiko degu (*Ezkerreko atetik juaten da*)

IV

XEFEINA. Beriala JOXE JOAKIN. Azkenean
MAÑAXI

Xefeina.—Ikusiko degu, ikusiko degu... Braka zarrak ikusiko ditugu emen; besterik, ez. Len Koxme'rekin ezkondu biar nuela, ta pozez txoratzen jarri, ta orain, orra, senargai gaztia kendu, ta bere orde zarrak eman. ¡Nik Koxme maite nuenarekin! Ez, ba: moja juango naiz. Koxme zenbat maite detan orretan ezagutuko dute.

Jo.-Jo.—(*Xefeina*'ren aita da. *Irurogei* bat urteko etxe-gizon jatorra. Bere burua legoi egin nai luke, baña uxu bat besterik ez da. *Beti asarre-itxuran dabil, bañan bere asarriak itxura besterik ez dira. Eskuiko bigarren atetik sartzen da, oitu bezela asarre-itxuran*) Orain ere txamarren sakeletik be-lar-toxa ta su-arriya eraman dizkidate. ¡Mi-lla deabru! Zein dan baneki txiki-txiki egin-go nuke.

Xefeina.—Ez naiz ba ni izan.

Jo.-Jo.—Ez; katua izango zan. Dana da-la, orreatik, arrapatzen detan egunian, egun gorriya dauka. *Beti nere zarpa zarretan ibi-li bear zer somatzen ote duten. Bat edo bati lepua biyurritzeko zoratzen nago.*

Xefeina.—Ez naizela ni izan.

Jo.-Jo.—(*Gero ta sutsuago*) Ez nazazula nagon baño geyago sutu-arazi, ez-egiteko bat egiteko zoriyan nago ta.

Xefeina.—Baña, ni...

Jo.-Jo.—Baña zu, edo arrayoz jositako txe-peleta dala, atzaparretan txetu, apurtu arte ez daukat onik.

Xefeina.—(*Bat batetan gogoratuaz*) ¡A! Ama izango zan.

Jo.-Jo.—(*Apalduaz*) ¿Ama?

Xefeina.—Bai; ama izango zan. Txamarra

garbitzen ikusi det, eta sakelak lenbizi garbituko zituen.

Jo.-Jo.—(*Oso apal*) Ama izan bada...

Xefeina.—Ama izan dala ziur nago; brakak tajutzeko ere emen utzi dizkit.

Jo.-Jo.—*¡A, bai!* Nere braka zarrak.

Xefeina.—Braka zarrak eman, ta senargai gaztia kendu.

Jo.-Jo.—*¿Nola?*

Xefeina.—Koxme ez dala nerekin ezkonduko.

Jo.-Jo.—(*Asarre biziyan*) *¿Ez* dala ezkonduko? Milla deabruekin ezkondu biarko du.

Xefeina.—Milla deabruekin ezkonduko da; baña nerekin, ez.

Jo.-Jo.—Zurekin ezkondu biarko du ba; bestela, muturra barrengo aldera jirako diyot. Arrayoz jositako ume petrala. *¿Orain* ez dala ezkonduko?

Xefeina.—Ez du arrek orrelakorik esan.

Jo.-Jo.—Esan duenak esan duela, zurekin ezkontzen ez bada, atzaparretan zenbat beatz dauzkatan sudurrarekin zenbatu biarko ditu.

Xefeina.—Baña, Koxme'k...

Jo.-Jo.—Ez zaitia orain arren alde atera, prejitzen jarri nazu-ta. Len artaratu, ta orain bere itza jan. *¡Milla deabru!*

Xefeina.—Ez du arrek ezer jan.

Jo.-Jo.—Ematen diyotan begiondokoarekin, nik aterako dizkiot geyago jateko go guak. ¡Brokoliyo txepela!

Xefeina.—Baña, ura...

Jo.-Jo.—(*Oso sutsu*) Ura ta zu, biyak, nere atzaparretan apurtuko zaituztet. ¡Irakiten jarri nazute, arrayoz josi oyek!

Xefeina.—Koxme'k ez du ezer esan.

Jo.-Jo.—Ezta biar ere.

Xefeina.—Amak esan du, amak...

Jo.-Jo.—(*Apalduaz*) ¿Amak?

Xefeina.—Bai; amak esan du. Aixtiyan esan dit.

Jo.-Jo.—(*Oso apal*) Amak esan badu...

Xefeina.—Eta ni ez naiz orrenbesterekin geldituko; ta moja juango naiz.

Jo.-Jo.—Ni ere juango nitzake oraintxe. zuen tartetik iges egiteagatik.

Xefeina.—Moja juango naiz, bai, moja.

Jo.-Jo.—Ni're bai.

Mañaxi.—(*Ezkerreko atetik sartuaz*) ¿Zer da? ¿Orain ere moja-tratu ari al zerate? ¡A zer bi bildu zeraten!

Jo.-Jo.—Ni ez. Ni ez naiz moja juango.

Mañaxi.—Noski.

Jo.-Jo.—Baña, Koxme'k atzera egiten ba-

du, imilla deabru! Koxme bera moja sartu-
-aziko det.

Mañaxi.—Zuk ez dezu Koxme'rekin zer
ikusirik.

Jo.-Jo.—Ez, ba. Baña nere alabari parra
ta iseka egin biar badiyo, ematen diyodan
belarriondokoarekin, arto-alia apurtzen dan
bezela nere atzaparretan apurtuko det axo-
liyo gatzil ori. ¡Irakiten jarri nau oraintxe!

Mañaxi.—Astokeririk esan gabe, ixilik
zaude. Koxme neronek biali det.

Xefeina.—Bai; ta ni moja juango naiz.

Jo.-Jo.—Zuk biali dezu, bai noski, ta on-
do egin dezu. Baña nik ez nuen bialiko or-
dia. Nik emen bertan zapaldu, purrukatu,
txetuko nuen. Orain daukadan amorrue-
kin... Ez-egiteko bat egiteko zoriyan nago.

Xefeina.—Ni're bai.

Mañaxi.—Zu, bai; nere aginduak ez egi-
teko zoriyan egongo zera noski. Ikusi naiko
nuke braka oyek nola dauden.

Xefeina.—Purrukatuak. Ni nere asmoe-
tan bezela.

Mañaxi.—Baliteke. Baña nik tajutuko di-
tut zure asmuak; eta brakak ere nik tajutu
biarko ditut noski, gauza zuzenik ez zenuen
egingo-ta. (*Brakak Xefeina'ri kendu ta iku-
siaz*) ...¡Ikusten! ¿Au al da brakak tajutze-

ko itxura? Ta, gero, ezkondu egin biar dezula, esango dezu. ¡Ezkondu!

Xefeina.—Nik Koxme'rekin ezkondu naituen.

Mañaxi.—Ez zera bada Koxme'rekin ezkonduko.

Jo.-Jo.—¿Koxme'rekin? ¡Parra ta iseka egin ondorian! Ez genuke besterik biar. Lenago biyak nere atzaparretan purrukatuko zaituztet. ¡Eskallu ziztrin oyek!

Mañaxi.—Au ezkonduko da nik nai detanarekin.

Jo.-Jo.—Bai, noski; zuk nai dezunarekin ezkondu biarko du. Baña, ez ordia Koxme zirtzil, petral orrekin.

Mañaxi.—Nik nai badet Koxme'rekin ezkondu biarko du bada.

Jo.-Jo.—Zuk nai badezu, bai noski. ¡Orida ba nik esaten detana! Baña Koxme, arrote orrek egin digunarekin... ¡Milla deabru! ¡Atzaparretan baneuka!

Mañaxi.—Arrek ez duela ezer ere egin.

Jo.-Jo.—Obe're badu. Estiak aterata ez da ordaintzen ergel alen ori.

Xefeina.—Koxme'rekin ez banaiz ezkontzen, moja juango naiz bada.

Jo.-Jo.—Ez zera bada moja juango. Lenago lepua biyurrituko dizut. ¡Milla deabru!

Mañaxi.—Nik nai badet moja juango da bada.

Jo.-Jo.—Zuk nai badezu, bai noski. Baña ez ordia berak nai duelako. Ikusi dezu nola lotsagabetu dan arrayoz jositako ume zirtzil au.

Mañaxi.—Ikusi det, eta nik dakit zer egin biar detan. ¡Utzi nazazu neri!

Jo.-Jo.—Zuri bai noski, utziko dizut; baña, zorigaiztoko ume petral oni...

Xefeina.—Moja juango naiz bada.

Jo.-Jo.—Ez zera juango.

Mañaxi.—Juango da bada, nik nai badet ¡Zer da berriz gizon zalapartari au!

Jo.-Jo.—Prejitzeko zoriyan jarri nazute-ta.

Mañaxi.—Ez dezu zuk prejitzeko su askorik biar.

Xefeina.—Juango naiz bada.

Mañaxi.—(*Xefeina eskuiko lenengo ataldera bultziaz*) ¿Berriz? Emendik bai, aidian, juan biar dezula, ta orain bertan.

Jo.-Jo.—(*Xefeina'rengana juanaz*) Tximistak egiten gero; nik oso purrukatu baño len.

Mañaxi.—(*Joxe Joakiñ'i ezker aldera bultziaz*) Zu, atzera; zuk ez dezu zer esanikan.

Xefeina. — (*Mañaxi'rengana alderatuaz*)

Moja juango naiz bada. (*Irurak len bezela egiten dute berriro*)

Mañaxi.—Nere begiyen aurretik juango zera. Ta azkar gero.

Jo.-Jo.—Nik ematen diyodan kankarrekoarekin egan jua biarko du.

Mañaxi.—Esan dizut geldirik egoteko gure tartian sartu gabe.

Xefeina.—Moja, bai; moja juango naiz.

Mañaxi.—Barrenara juango zera oraintxe, ta nik jakingo det zer egin. (*Eskuiko lenengo gelan Xefeina sartzen du, ta atia itxi, ta atiari bizkarra emanaz gelditzen da, zaitzen bezela. Joxe Joakin asarre biziyan gelan sartu nairik dabil, ta Mañaxi'k esaten dio*) Ta zu, geldirik.

Jo.-Jo.—Utzi nazazu sartzen, txiki-txiki egin dezadan neska zirtzil ori.

Mañaxi.—Geldirik egoteko, esan dizut.

Jo.-Jo.—Ematen diyodan kankarrekoarekin, sudurra zapaldu, txetu, purrukatu... (*Au esaten duen bitartean Joxe Joakin'ek besoa altxatzen du Mañaxi jotzera balijoa bezela. Une onetan, Talo atzeko atean azaltzen da*)

MAÑAXI, JOXE JOAKIN eta TALO

Talo.—(*Atzeko atean azalduaz*) ¡Ez diyo-kala Mañaxi'ri burrukan egiten!

Mañaxi.—(Auxe biar genuen oraintxe.)

Jo.-Jo.—Ez nazakala nagon baño geyo sutu, eriyotz bat egiten ikusi nai ez banak.

Talo.—¿Ik? ¡Ez zioke toki txarrian! Ago, ago; emaztiak jarriko au i laxter arkumia bezela *ibe! ibe!* egiaz. ¡Ez al zekiau ba, oso menpetua aukala!

Jo.-Jo.—(*Talo'rengana juan eta ukabilla altxiaz*) Nere atzaparretan txikituko at.

Talo.—(*Parrez eta Joxe Joakiñ'i arpegia marruzkatuaz*) Ago ixilik. Etxe ontan brakkak ire emaztiak dituela bazekiau-ta.

Jo.-Jo.—(*Talo'rengandik aldendu ta ezkerrian exeriaz*) Ez-egiteko bat ez egiteagatik uzten diat.

Talo.—Ori banekikan. Ik zalaparta asko atera; baña, azkenian, ire emaztiak kukurruku egin. Etxe ontako legia orixe dek. ¡Ez al zekiau ba!

Mañaxi.—Emen jakin biar deguna da, baztarrak nastutzeraz zergatik etorri zeran berriez etxe onetara.

Talo.—Zuei albiste bat emateagatik.

Mañaxi.—Ez degu zure albisteik jakin nai.

Talo.—Ez dezu ori esango jakiten dezu-nian. Zuek asko poztuko zaituzten albiste bat da. (*Mañaxi'rengana juan eta marruskatuaz*) Bai, makarroxina, bai.

Mañaxi.—Zuaz emendik, agure zarpalla.

Talo.—Albistea ematian beriala juango naiz.

Jo.-Jo.—Esan bear dekana esan zak ba laster, ta ua emendik tximistak egiten, amonru biziyan niok eta.

Talo.—Ire amonruak ez niotek batere kezkatzen. ¿Ez al zekiau ba, i egabera aizela?

Jo.-Jo.—Egabera edo egagora, esan zak azkar, esan biar badek.

Mañaxi.—Eta, alde emendik; ez gaude zure astokeriyak entzuteko-ta.

Talo.—Beriala esango dizutet bada. (*Jo-xe Joakin'engana alderatu ta marruskatuaz*) ¿Badakik?... Koxme, e...

Jo.-Jo.—(*Bat batetan oso asarre altxiaz*) ¿Koxme'ren tratuaikin al ator onera? ¡Nere atzaparretan baneuka nai nitek, milla puska egiteko!

Mañaxi.—Koxme'k etxe ontakuak egin ditu; ta ez degu bere berririk batere jakin nai.

Talo.—Nik dakartan berriya, bai ordia.

Mañaxi.—Ezta ere.

Jo.-Jo.—(*Exeriaz*) ¿Zer da ba?

Talo.—(*Joxe Joakin'engana jua eta maruskatuaz*). Badakik, e... Koxme'k burrun-tzi bat zikan.

Jo.-Jo.—Bazekiat.

Talo.—Burruntzi bat, ¿e?

Jo.-Jo.—Bai; guziya bazekiat.

Talo.—(*Joxe Joakin'engandik aldenduaz*) Ez; izer jakin biar dek! Ik ez dakik ezer. (*Mañaxi'rengatik eta beregana juanaz*) Onek zekik.

Mañaxi.—Or esanta, nik entzungo det. Ez zatozela onera euli-mando ori.

Talo.—Badakizu; Koxme'k burrun-tzi bat zuen.

Mañaxi.—Bai; burrun-tzi bat besterik ez.

Talo.—¿Zenbat burrun-tzi nai zenuen ba izatia? ¿Burruntziak, arto-aliak dirala uste al dezu, edo zer?

Mañaxi.—Zer esan detan, badakit.

Talo.—Bada, burrun-tzi ori, jua dan iganderako Tipulax - eneko ardandegikoai eman ziyen. Badakizute; emengo sagasti za-leak afariya zuten jua dan igandian; ta, arkumia erretzeko. ¡Mutillak! ¡Koipe ede-rrik botatzen zuen!

Jo.-Jo.—Koipia utzi ta mamiya biar diagu emen.

Talo.—Bai nik ere, mamiya nayago nikan. Burruntziyan zegola kosk egiteko egon nindukan.

Mañaxi.—¿Baña, astokeri oyek esatera etorri al zera onera?

Talo.—Ez andria; ez naiz orretara etorri.

Jo.-Jo.—Esan zak bada, esan biar dekana.

Talo.—Esango dizutet. Burruntziya, zillarra bezela garbi-garbi egin, eta Koxme'ri emateko, ardandegiko txoko batian onela zeukaten. (*Burruntziya eskuan balerama bezela eskuiko ormara juanaz eta an uzteko itxura egiñaz. Mañaxi'ren aldemenetik igarotzeakoan onek ikara antza egiten du. Talo erdira biurtzen da*) Gu ardandegiyan geunden.

Mañaxi.—Zu, jakiña da. ¡Non egongo zifian ba bestela!

Talo.—Antxen negon ba, txiki erdi baten kondarrai txurrut egin edo ez egin... (*Atzeko atera juan eta andik itzegiñaz*) eta ontan, prantzes eo ingeles mutur-gorri oyeta-ko bat ateetan azaldu zan. Ez zuen agertzia besterik egin... Beriala burrunzia ikusita danba, danba, danba... (*Prantzesaren itxura egiñaz, Mañaxi'ri alderatzen zaio.*)

Onek beregana datorrelakoan, karraxi egiten du)

Mañaxi.—¡E! ¡Geldirik emen!

Talo.—Prantzesa zijoala onela.

Mañaxi.—Prantzesa juango zan; baña, zu, ez zaitut nere ondoan ikusi nai. (*Lasterka ez-kerrera joan eta josteko alkiaren atzian gelditzen da*)

Talo.—¿Senarra aurrian dagolako al da?

Mañaxi.—Atzian badago ere berdin zait.

Talo.—Zuri bai noski. Zu beti nagusi izango zera-ta. ¡Txipiritona!

Jo.-Jo.—Buka zak, bukatu biar badek.

Talo.—Bai; orain bukatuko diat. (*Burruntziya uzteko itxura egin duen ormara juan eta eskuetan balu bezela*) Artu zuen burruntziya eskuetan, eta... ¡A! ¡O!... Berri begira abua zabalik gelditu zan.

Mañaxi.—Ez zuen zeri begiratu aundirik.

Talo.—Zu izan bazindu, ez zait iduritzen geyago begiratuko zizunik.

Mañaxi.—Ezta biar ere.

Talo.—Bekuaz gora, goikuaz bera, alde guzietara erabili zuen. Begiyak bere artan josi nai zituen. ¡Ezin ordia! ¡Sudurrarekin, kaska, jotzen! Izan ere, kana ta erdiko sudur konkorra bazuen eta...

Mañaxi.—Ez zuen zure antz aundirik izango.

Talo.—(Atzeko atera juanaz) Kalera aterata ere, argitan ikusten egon zan. (*Aurre-ratuaz*) Eta, berriro sartu zanian, ojuka eraso zuen: “Aquí esa, aquí esa”...

Jo.-Jo.—¿Aquí esa?

Mañaxi.—¿Aquí esa? Ikusten zer lotsagabria...

Talo.—Nik, gaztelarrez asko askorik ulertzen ez badet ere, antz eman nion emakumezkoren bati beregana juateko deitzen ziola.

Mañaxi.—Ta zuri ondo iduritu.

Talo.—An zeudenak ere, nik bezela ulertu zuten.

Mañaxi.—Zure antzekuak izango ziran.

Talo.—Emakumezkorik an zegona, *Mai-Bixenta* zan, eta prantzesak deitzen ziola esan genion. ¡Ez ordia juan nai!

Mañaxi.—Ez, noski; zuk baño buru geyago du-ta.

Talo.—Buru geyago... ez dakit; ille geyago beintzat bai.

Jo.-Jo.—Eta zentzu geyago're bai.

Talo.—Gu, zer egin ezin asmatu genuela arkitzen giñan, eta zenbat eta nastutuagoak ikusten ginduen, orduan ta karraxi aundia-goak egiten zituen: “Aquí esa, aquí esa”.

Mañaxi.—Ixildu aziko nuen nik an izan banitz.

Talo.—Zuk bai noski; senarra ixildu azitzen dezun bezela.

Jo.-Jo.—Begira zak, gero.

Talo.—Azkenian, Moexto, Etxesaletxe'ko Moexto, Polikarpo errementariyarengana juan zan.

Jo.-Jo.—(*Oso asarre altxa, ta eskuira juanaz*) Erremienta ona bera, asto, kirten ori. Aitatu utsarekin kixkaltzen jartzen nak.

Talo.—Bai, bazekiau...

Jo.-Jo.—Azkeneko tajutu zidan aizkorari ere altzairu ederrik jarri ziokan, eskalu, ergel alen orrek. Sudur-zuluetan sartuko niokan nik altzairu ura. ¡Milla deabru!

Talo.—Errementari bezela txarra dala bazekiau; baña musian eta prantzesez beste bat ez bezelakua dek ordia.

Jo.-Jo.—Ezertan ere ez, arrayoz jositako ume baldar, kaskall ori.

Talo.—Prantziyan ere egona dek-eta.

Jo.-Jo.—Ez zikan ba lanian batere ikasi.

Jo.-Jo.—Prantzesez eta musian, bai ordia.

Jo.-Jo.—Zer ikasi biar zikan. Gauza izan biar ezer ikasteko.

Talo.—Orrek prantzesez... ¡Fraskuelo'k baño geio zekik eta!

Jo.-Jo.—Erremientak alperrik galtzen bai, bazekik orrek.

Talo.—(*Mañaxi'ri*) Arrek esan zigun “Aquí esa” esan nai zuela: “¿Norena da au?” ¡Edozein gauza! Esaten omen da: *A qui est ça? (Joxe Joakin'i) A qui est ça?* ¡Asma zak, axkora dek ori!

Jo.-Jo.—Axkora izan balitz ez zikan asmatuko errementari ergel orrek. Neri axkora ondatu zidan bezela. ¡Milla deabru!

Talo.—Polikarpo'ren bitartez alkar aita, onera etorri ta Koxme beregana eramandak. Koxme oso asarre zegon... (*Mañaxi'rengatik*) Onekin zerbait izana izango zan.

Mañaxi.—Nerekiñ ez du ezer ere izan.

Talo.—Ez dakin. Nolanai dala ere ez zuen ezer entzun nai. Burruntziagatik, zenbat bear zuen galdetzen zion; baña, mutututa gelditzen zan. Azkenian, prantzesa begiyen aurretik botatziagatik... ¡orreatatik bakarrik, e!, lau milla duro esan zion. ¡Lau milla duro! (*Mañaxi ta Joxe Joakin, Talo'ri bi aldamenetan jartzen zaizkio*)

Mañaxi.—¡Lau milla duro!

Jo.-Jo.—¡Lau milla duro!

Talo.—Lau milla duro.

Mañaxi.—Burruntzi batengatik.

Jo.-Jo.—Badek dirua.

Talo.—Eta prantzesak itzetik artu ta ikaska!

Mañaxi.—¿Kaska?

Talo.—Kaska, bai, kaska.

Jo.-Jo.—¿Zer kaska, ordia?

Talo.—¿Kaska! Burruntziya lau milla duruan erosi.

Mañaxi.—¿Ene!...

Jo.-Jo.—Ez, kaska; baña kaskarreko ederra dek ori.

Talo.—Bai noski; ta bertan tratua erabaki, ta bertan lau milla duruak ordaindu.

Mañaxi.—(Ezkerrera juanaz abopian itzegiñaz) ¡Lau milla duro! ¡Lau milla duro!

Jo.-Jo.—Gezurra zirurik.

Talo.—Egi-egiya dek ba.

Jo.-Jo.—(Mañaxi'ri beregana alderatuaz) ¿Baña zuk oni, egiyaren antz izpirik arkitzen al diozu?

Mañaxi.—¿Arkituko ez diyot ba? Egi-egiya dala txinixtu zenezake.

Jo.-Jo.—¿Zergatik ordia?

Mañaxi.—¿Zergatik izango da? Lau milla duro oyek onera etorri biar dutelako.

Jo.-Jo.—¿Onera?

Mañaxi.—Etxe onetara, bai.

Jo.-Jo.—Ez da ori...

Mañaxi.—¿Ezetz? Diru oyek laster ikusi-ko dituzu nere eskuetan.

Jo.-Jo.—Baña...

Mañaxi.—Nere giltzapian gelditu biar dute, bai.

Jo.-Jo.—(*Talo'ri*) Baña... ¿zer zikan burrunzti arek orrenbeste diru emateko?

Talo.—¡A! Burruntzi ura zarretakua dek.

Mañaxi.—Bai, ba. Aurrekoen aurrekoak utzitakoa zala, Koxme'k berak esan zidan. Neri guziya esaten dit.

Talo.—Zuri, bai noski.

Mañaxi.—Nik nai izan banu, burrunzti ori neretzat izango zan; baña, ez; nik ere lau milla duruak nayago ditut.

Talo.—Esango nuke. Ez zaude tratalari txarra. ¡Giltxurriña!

Mañaxi.—¡Lau milla duruak, lau milla ruak!

Jo.-Jo.—Iñondik iñora nik ezin ulertu diat ba.

Talo.—Burruntzi orrek jentillen garaikoa izan biar dik.

Jo.-Jo.—¿Zer jentil gero?

Mañaxi.—Koxme'ren aurrekuak. Gure aurrekuak esan genezake. Koxme guria bezela bai degu.

Talo.—Ik ez dakik; baña emen, orain urte asko, baña asko, jentillak bizi itukan. Gizaseme, ikaragarritzko aundiyak...

Mañaxi.—Bai, ba; Koxme'ren aita bera ere, ate ortan ezin sartu zan; alakua zan-ta.

Talo.—Orrek ez du zer-ikusirik. Bestelakorik ziran ayek. Gizaseme ayen oin bakoitza, pabriketako tximini luze oyetako bat baño aundiagoa zan. Beso bakoitza... beste tximini oyetako bat bezelakua. Urte asko igaro dituk ordutik onera, ta gu, kaxkartu egin gaituk, apurtu. Intentxiyua, bai... ire emaztiak bezela. Mingaiñian indarra ere bai...

Mañaxi.—¿Errosariyo ori, luzia al da?

Talo.—Zure mingaña bezin luzia, ez. ¡Tipulaxiña!

Mañaxi.—¡Astua!

Jo.-Jo.—Zer esaten dekan begira zak gero.

Mañaxi.—(*Joxe Joakin'i*) Ta zuk ere begiratu biar dezu.

Jo.-Jo.—¿Nik? ¿Mingain luze, beñere deitu al dizut, ba?

Mañaxi.—¡Ez genuke besterik biar! Baña, zure amorru oyekin edozer gauza esaten dezu. Koxme'rengatik nai aña zitalkeri bota dituzu, ta ortik etorri dira emengo oztasunak, emendik alde egitiak...

Jo.-Jo.—¡Baña, nik Koxme'rik ikusi ere ez badet! Ta, gañera, zuk biali dezula zeorrek esan didazu.

Mañaxi.—¿Nik, e? Gauza txar guziyak nik egiten ditut. Aixtiyan Xefeina'rekin zalapartaka ere ni izango nitzan.

Jo.-Jo.—Orrek ez du ezer ikusirik.

Mañaxi.—Badu, bai. Utzi nazazu neri. Nik antolatuko det; eta lau milla duro oyek nik gordeta ikusiko dituzu.

Jo.-Jo.—(Zuk gordeta nik ikustia, ez da errez izango.)

Mañaxi.—Utzi nazazu neri.

Jo.-Jo.—Bai, bai.

Talo.—Bada, jentillak gizaseme ikaragarriko aundiyak ziran; eta indar batzuek bazituzten ezin esan alakoak. Etxia baño aundiagoko arkaitz puskek atzaparretan artu ta kanikak balira bezela, beren ayekin jostatzen ziran.

Mañaxi.—Jostallu egokiyak.

Talo.—Izan ere, ayen atzapar bakoitza pelota-jokuko pareta baño aundiyagoa zan-ta.

Jo.-Jo.—Orduan baxo-erdiyari eltzeko gaizki ibilliko itukan.

Talo.—¿Baxo erdiya ayek? ¡Bai zera! Upela oso-osorik atzaparretan artu ta izan-

ga, zanga! ustu arte. ¡A! Garai artan jayo
biar nuen nik. ¡Garai artan!

Mañaxi.—Zanga zanga ederrik egingo ze-
nuen zuk.

Jo.-Jo.—Zanga obeto egingo zuen onek
bai, edana ordaindu (pagatu) baño.

Talo.—¿Orduan ordaindu? Errex. ¡Abe-
rats purrukatuak itukan ta!

Mañaxi.—¿Nola ez ziran izango, lau milla
duroko burrunntziak zituztenak?

Talo.—Ayen aberastasunak zenbaterafio-
koak ziran, ametsetan asi ta ere ez genioke
antzik emango. Eta guziyak emen utzi zi-
tuzten.

Mañaxi.—¿Emen?

Talo.—Gure oñetan. Be guziyak aberasta-
sunez betiak daukazkigu. Emen azpiyan zer
dagon guk ez dakigu.

Jo.-Jo.—¿Emen azpiyan? Pipiya ugari.

Talo.—Berago, ordia. Aberastasun oyek
non dauden asmatuko balitz... Ta egunen
batian azaldu biar dute. Nai ta naiez ager-
tuko dira. Ta orduan... ¡A! guztiyak abe-
rats purrukatuak izango gera.

Jo.-Jo.—Guztiyak aberats egiten diran egu-
nian, guztiyak txiro.

Talo.—Orduan ez du iñork lanik egingo.
Lan egiten duena, presiliyora.

Mañaxi.—Lanik egiten ez bada, ia nondik sortuko diran aza ta babarrun ta...

Talo.—¿Aza ta babarrunak zertarako dituzu, sakelian naiko diru izan ezkerero?

Mañaxi.—Dirua jango dezu zuk.

Jo.-Jo.—Diruakin beteko dek ik sakela.

Talo.—Orretan balego... Okerrena da ez dirala arkitzen. Or, Aitzgorri'n ta, jentil-arriyak arkitu dituzte, bai; bañan oyek ere kaxkarrak dira. Beren azpiyan exur batzuek azaldu dira... kondarrak, apurrak, utsa. Tarteka, tarteka, zerbait azaltzen dala, orain burrunziya bezela, ta besterik ezer ez.

Jo.-Jo.—¿Ta alako gizon aundiyak zertarako zitekan orrelako burrunzi txikiya?

Talo.—Ez zekiagu ba. Ortzak garbitzeko edo orrelako zerbait izango ukan noski.

VI

LENGUAK eta KOXME

Koxme.—(*Atzeko atean azalduaz*) Emen naiz ni berriro.

Mañaxi.—Gure lau milla duruak emen ditugu.

Talo.—(*Koxme'rengana juan eta marruzkatuaz*) Ona emen burrunzalia edo burrunzi zalia.

Koxme.—Zaude geldirik, gizona.

Mañaxi.—(*Joxe Joakin'i*) Eta orain, utzi neri. Nik antolatuko det. Utzi neri.

Jo.-Jo.—Bai emakumia, bai.

Talo.—I aiz, i; bateko ezpata ez, baña. bateko burrunziya.

Koxme.—Itzegin zazu mingañarekin, ta ez atzaparrakin.

Talo.—Nik guziyakin itzegiten diat; baita alpraketen lokarriyakin ere.

Koxme.—(*Mañaxi'rengana juanaz*) Mañaxi: zuri gauza bat esatera etorri naiz.

Mañaxi.—Nai dezun guziya esan zenezake.

Koxme.—Neri begiratuta burrunzi bat ikusten zenidalako kezka zenuen. Ez didazu orain geyago ikusiko. Ez det burrunzirik.

Mañaxi.—Saldu dezula badakigu.

Jo.-Jo.—Ta ondo saldu dekala ere bai.

Talo.—Nik guzi-guziya esan ziuatet.

Jo.-Jo.—Onek, lau milla duruan esan ziuk.

Mañaxi.—Lau milla duruan esan digu.

Talo.—Bai, ba... Larogei milla duruan.

Mañaxi.

Jo.-Jo.

Koxme.

} —¿E?

Talo.—Ez, ez; lau milla duruan.

Koxme.—Egiya; lau milla duruan saldu det.

Jo.-Jo.—Ostikada ederra dek.

Mañaxi.—Berri orrek asko poztu gaitu. Au txoratuta gelditu da. (*Joxe Joakin'gatik.* *Oni poztutzeko keñu egiten dio*)

Jo.-Jo.—Bai; esateko era batian...

Mañaxi.—Esateko era guzietan... Eta Xefeina... ¡A! Xefeina, bere onetatik ateria dago... Ta etxeko guztiyak, etxeko guztiyak, pozez bete gera... ta... badakizu... lengo itzian bazaude...

Koxme.—Azkeneko itzian irauten det.

Mañaxi.—Orduan ez dago geyago zer esanik (*Eskuiko lenengo atian deituaz*) ¡Xefeina!

Koxme.—¿E?

Mañaxi.—(*Koxme'ri*) Orain etorriko da, ta biyen ezkontza beriala antolatuko degu.

Koxme.—Ori ez da ordia gure azkeneko itza.

Mañaxi.—¿Zer?

Jo.-Jo.—¿Nola?

Talo.—Ara, ara...

Koxme.—Gure azkeneko itza izan da: ba-koitza bere mallan. Eta bat jexten danean, bere asmoetan ere jetxi egin bear du...

Mañaxi.—¿Zer esan nai dezu?

Jo.-Jo.—¡Milla deabru!

Koxme.—Eta igotzen danean, igo.

Mañaxi.—Baña ¿zer naspil dira abek?

Jo.-Jo.—¿Zer dituk katramil oyek?

Koxme.—Ni orain igo egin naiz, eta zuen alaba bian gelditu da. Beaz beragoko senargai bat billatu biar du.

Mañaxi.—Lotsagabia ez besterena.

Jo.-Jo.—Arrayoz jositako petrala, ¿zer gerala uste dek?

Koxme.—Nik goragoko andregaya billatu biar det. Eta begiz jua daukat. Sendagillearen alaba eskatzera nua.

Talo.—Ederra dek!

Mañaxi.—¿Enplasto onekin ateratzen al zera orain?

Koxme.—Enplasto au zeorrek egin dezuna da.

Jo.-Jo.—Baña, arrayoz jositako ume zirzilla, ¿len esantako guziya, lengo eskeñiak, lengo agintzak alperrikakoak dirala uste al dek?

Koxme.—Alper-alperrikakoak. Mallaz aldatu gera; beaz itzaz eta eskeñiaz ere aldatu egin bear degu.

Talo.—¡Ederra dek!

Mañaxi.—Kaiku, maltzurra. Zu aldatuko zinduket nik oraintxe.

Jo.-Jo.—¡Milla deabru! ¡Baña ik ezkontza zer dala uste dek?

Koxme.—Emazteak esango dizu: “Anima salbo, txerri-tratu jator-jatorra”.

Jo.-Jo.—¡Purrukatuko at!

Mañaxi.—¡Petral gaiztua!

Koxme.—Ori esatera etorri naiz, ta orren besterekin banua. (*Koxme atzetik juaten da. Joxe Joakin ta Mañaxi oso asarretzen dira. Talo, itotzeko zoriyan algaraka, atzeko atian gelditzen da*)

Jo.-Jo. — Atzaparretan apurtuko nuke oraintxe.

Mañaxi.—Azkazalak sartuko nizkioke.

Talo.—(*Atzean algaraka*) Orrek bai sartu dizutela... iburruntziya!

Jo.-Jo. — (*Alki batekin jotzera egiñaz*)
¡Txirtxillatuko at!

Mañaxi.—¡Talo, ez besteren talo! ¡Astua!

Talo.—¡Kaska!

EZKUTAZAPIA JEXTEN DA

BERNAINO'REN LARRIYAK

(Jostirudia egintza bakarrean)

Donostiko Biltoki edo Teatro Lenendikoan (Teatro Principal) lenengo aldiz aurkeztatua, Abenduaren 21'an 1915'garren urtian.

"Izarra" zeritzaion sortan argitaratua, 17'garren alean, 1923'garren urtian.

"Euskal-Esnalea"-n iru pusketan argitaratua, 1923'garren urtian.

(Biak argitaraldia bera dira.)

IRUDIGILLEAK

Andre Kaxilda

Pilartxo

Iñaxi

Filemon jauna

Fernando jauna.

Premiñ

Bernaiño

I

Iruditegiak aurkeztatzen du Donosti'ko etxe aberats bateko gela apaña. Atzian, ezkerretara, sarrera zabala. Eskuira, begirato-ki edo miradoria. Aldamenetan, esker-eskuira, atiak. Mai polita; exer-leku apañak; lauki, lore ta beste edergarri-motak.

Estalkia igotakoan, Andre Kaxilda ta Iñaxi, gela antolatzen ari dira; Iñaxi'k lorolalda bat dauka eskubetan.

ANDRE KAXILDA ta IÑAXI

Andre Kaxilda. — Tira emakumia, lore oyek jarri itzazu beren tokiyan; mugi zaitia, korri, salto...

Iñaxi.—¿Bikuak egiten astia nai al du?

Andre Kaxilda.—Bikuak ezezik irukuak eta laukuak plateretan egiten nazkizu naitua, ta ez neri orlakorik aitatu.

Iñaxi.—Ara bada, orainguan kraxkatu're gabe, orra oxo-oxorik laga.

Andre Kaxilda.—Arritzeko're bada, zure

esku berunezkuakin. Senargaya izatian, gure ontziyai bezela arren eskubai eltzen badiyozu, laster biatzik gabe geldituko da.

Iñaxi.—Arri ordia, goxo-goxo egingo diyot.

Andre Kaxilda.—Platera eskubetan artzian, pentsa zazu bada, senargaya dezula.

Iñaxi.—¿Talaberazkua?

Andre Kaxilda.—Ez; zuk biarko dezu, *biscuit*. Tira, tira jarri zazu alki (y) ori baztarrerago; ekarri zazu lenbizi aingeru beltza; baña, eraman itzazu paper abek; zuaz emakumia, eldu zayozu mai oni...

Iñaxi.—¿Exertzeko ez al dit agindu nai?

Andre Kaxilda.—¿Exeri? Pilemon jauna bere semiarekin berialaxe emen da, ta oraindik gela biar bezela antolatu gabe dauka gu.

Iñaxi.—Izan ere, Pillemon edo dalako ori, alako edertasunetan oituba egongo da Errezil'go mendi-tontorretan.

Andre Kaxilda.—Dagon tokiyan dagola, Pilemon jauna ikaragarritzko aberatsa da, ta Erniyo'n badago're izango du nai duben guziya.

Iñaxi.—Aizia beñepin bai.

Andre Kaxilda.—¿Aizia? Zuben buru ariñetan bai, Erniyo'n baño geyago. ¿Zein da-

la Pilemon jauna, uste dezu? Nere senarraren betiko laguna da; anayak bezela maite ziran Amerikan zeuden bitartian. Neriak diru-mordoxka bat egin zuben; bestiak ez gutxiyago; ta onera biurtu ziranian, neria gelditu zan Donostiyan, eta Pilemon jauna berriz, baserri zalia izan bada, ta erosi zituben Errezill'en, Erdoizta'ko aldamenian, Jainkuak daki zenbat zelai, mendi ta baso; egin zuben etxe berri bat eta an bizi da gezotik, bere gogo guziyak osatzen ditubela.

Iñaxi.—Amaika zine, kasino, ta teatro, arrek ikusiko ditu.

Andre Kaxilda.—¿Zu bezelako txoro-flautata dala uste al dezu? Arrek diruba egiten du an ere. Ta lenago aberatsa bazan, orain aberats purrukatuba dago.

Iñaxi.—Mendiyan izatekotan, ¿zertarako du aberastasuna?

Andre Kaxilda.—¿Zertarako? Bere semiari uzteko. Seme bakarra. Zera... Izena... ez naiz gogoratzen nola deitzen diyoten, baña badakit oso moñoñua dubela.

Iñaxi.—Bera're ala izango da ta...

Andre Kaxilda.—Izango dan bezela. Ta orain, gure Pilartxo'ren senargaya da. Gurasuak egindako ezkontza. Nola aitak ain maitiak diran...

Iñaxi.—Gaztañak bezela, senargai billa're, mendira...

Andre Kaxilda.—Ez, Avenida'ra juango gera. An gustokuaguak izango dira.

Iñaxi.—Neretzat beintzat bai.

Andre Kaxilda.—Bai noski, *tirilla* oyeta-kuak, xota iltzeko aña kartik ez eta alare leren burubak iñon kabitu ezin dituzten gazte arro oyetakuak.

Iñaxi.—Arrazoi du: arkumiak menditik ekartzen dira.

Andre Kaxilda.—Baña zuk, ¿zer dala uste dezu... zera... (ezin gogoratu naiz izenaz) Pilemon jaunaren semia?

Iñaxi.—Urrez egintako xomorroren bat.

Andre Kaxilda.—Zaude ixillik erneatu gabe. ¿Oraindik ez dezu ekarri aingeru beltza?

Iñaxi.—Baña, beorrek...

Andre Kaxilda.—Berriketan asi ezkerro, ez dakizu noiz ixildu. Tira, tira, korri azkar.

Iñaxi.—Bai, aidian juango naiz. (*Juaten da atzeko atetik*)

Andre Kaxilda.—Neska eru abek senar-gai kontu asi ezkerro, lanaz batere gogoratu gabe, abu zabalik egongo lirake.

II

ANDRE KAXILDA ta FERNANDO JAUNA

Fernando. — (*Ezkerreko atetik ateratzen da Fernando jauna.*)

Andre Kaxilda.—Gizona, zer edo zer egiteko garaya dala iruditzen zait.

Fernando.—Baña emakumia, iru aldiz erropaz aldatu azi nazu.

Andre Kaxilda.—Orain ere ez dakit... au korbata jartzeko itxura. (*Antolatuaz*)

Fernando.—Badakit gaur trenik arrapatuko ez detala.

Andre Kaxilda. — (*Erropak antolatuaz*) Baldarra zera, baldarra; nik begiratuko ez banizu, ez dakit nik zer pinta aterako ziñaken.

Fernando.—Aterako nitzake beñepin, baño orain ez det uste aterako naizenik. Pilemon nere zai badago... Etxera bidia asmatuko al du.

Andre Kaxilda.—Esker gaiztoko gizona; zu ondo ikusteagatik ni sayatzen naizen bezela ta... ¡A! ¡Andre lasai oyetako baten eskubetan erori baziñan, ez dakit zer egingo zenduben!

Fernando.—Gaur beñepin, Pilemon irix-

teko ordurako estaziyuan egon. Bañan, orla bagaude... (*Besuak gurutzetubaz*)

Andre Kaxilda.—Ez besuak orla okertu, ukalondokuak egingo zaizkizu ta.

Fernando.—Bai, soldaruak bezela egongo naiz, zuzen, zuzen.

Andre Kaxilda.—Txapela ere ez dakit... (*Fernando makurtzen da*) Ai, nere belau-nak.

Fernando.—¿Zuriak?

Andre Kaxilda.—Altxa zaitia; belau-nakozkorakin galtza guztiyak ondatu biac dituzu.

Fernando.—Aldian.

Andre Kaxilda.—(*Txapela atera ta garbituaz*) Zuregatik ez dute esango, ez; neregatik. Badakit nola ariko diran: “andre orrek ez diyo beintzat asko begiratzen bere senarrari”.

Fernando.—Senarrari begiratzia, ongi arkitzen det; baña erropari ez orrenbeste.

Andre Kaxilda.—Zer esango duben Pilemon'ek ere...

Fernando.—Bañan zu, ¿zer dala uste dezun Pilemon? Gaztetan, Ameriketan, utzi bat, galbai bat...

Andre Kaxilda.—A zer bi bildu zifiaten.

Fernando.—Eta orain, orrenbeste urte

mendiyan igaro ondorian, pentsa zazu; onez-
kero lau ankian ibiltzen ere ikasiko zuben.
¿Juan al niteke? (*Atzera juanaz*)

Andre Kaxilda.—¿Pañuelo garbiya artu al
dezu?

Fernando.—Bai, bai, bai, bai, bai...
(*Atzeko atetik juanaz*)

Andre Kaxilda.—¿Eskuturrekuak gogor
jarri al dituzu? ¿Galtzerdiyak ongi lotuak
al damazkizu? (*Fernando'ren ondotik juan-
ten da*)

III

PILARTXO ta IÑAXI

Pilartxo.—(*Eskuiko atetik sartuaz*) Orain-
dik ez dira etorri. ¿Ageri ote dira begira-to-
kitik? (*Joaten da begira-tokira*) Ez; baña
eguneroko enplastua, or dago. Labezomo-
rrua baño itxusiyagua da gero. Ta gañera,
ardipat ez du izan biar. Alkandorari begi-
ratu besterik ez dago. Ez ditu ez. egunian
bi aldatzen. ¿Orrentzako nagola uste ote du?
(*Begira-tokitik biurtubaz*) Nere senargaya...

Iñaxi.—(*Aingeru beltza eskubetan dube-
la, atzetik sartuaz*) Ara beorren senargaya.

Pilartxo.—¿E?

Iñaxi.—Urrezkua izatia; gañerakuan, beorren amak diyonez, orlako zerbait izan biar du. (*Aingerua bere tokian lajiaz*)

Pilartxo.—¿Zer dakizu zuk, nolakua dan nere senargaya?

Iñaxi.—Ez ta beorrek ere.

Pilartxo.—Nik dakitana da...

Iñaxi.—Bai, aberatsa dala.

Pilartxo.—Noski.

Iñaxi.—Eta diru asko dubela.

Pilartxo.—Ditun bezela.

Iñaxi.—Eta lur naikoen jabe dala.

Pilartxo.—Ala da ta.

Iñaxi.—Eta beste ezertxorik ez daki.

Pilartxo.—Begira; neri, nere senargayak ekarriko dit automobilla.

Iñaxi.—Neriak herriz neri, pastel kremazkua.

Pilartxo.—Baña...

Iñaxi.—¿Nolakua dan ez dakiyen mutilla senargaitzat artu? Nik beintzat, ezagutu gabeko batekin automobillan baño, nayago det gustoko batekin oñez. (*Zintzarriya*)

Pilartxo.—Emen dira.

Iñaxi.—Bai, ayek izan biar dute.

Pilartxo.—Nere gelara nua: an egongo

naiz deitu arte. (¿Nolakua ote da nere senargaya?) (*Juaten da eskuiko atetik*)

Iñaxi.—Gaxua; orrek senargaya, marama dala usteko du. Diru askokua izan ezkeru, ederra.

IV

ANDRE KAXILDA, FILEMON JAUNA

eta IÑAXI

Andre Kaxilda.—(*Atzetik sartuaz*) *Iñaxi*, zabilta bixi. Iriki atia, emen dira ta. Lagundu zayozute oneraño.

Iñaxi.—Bai andria (*Atzetik juaten da*)

Andre Kaxilda.—Neronek ezkondu biar banuke, enitzake onenbeste larrituko. ¿Nun jarriko ote naiz? Ementxen. (*Exeriyaz*) Bai, emen; eskeñiko diyot beste silla ori ori ta...

Filemon.—(*Barrenen ojuka*) ¡Eup! ¿Bizi al die etxe ontako jendek?

Andre Kaxilda.—Filemon izan biar du orrek.

Filemon.—(*Atzian, agertuko da lenbizi Iñaxi. Gero ateraño aurreratuko da Filemon*) ¿Atso au al da Fernando'ren emaztea?

Andre Kaxilda.—(¡Jesus! Ezin ukatu menditik datorrela.)

Filemon.—Pernando'ri, gaztetan ere matatxa bezelako emakumek gustatzen zitzaizkan ta ezagun da. Ez du nere antzik. Nere emazte zanak, amaika arrua pixatzen zitun. ¡A zer emakumea! Gerriya kana t'erdi bazun.

Andre Kaxilda.—(¡A zer kupela!) (*Iña-xi'k alde egiten du, Filemon aurreratzen da Kaxilda'gana ta itz egiten diyo bizkarrian juaz*)

Filemon.—¿Ondo beaz, e? Ori biar deu, ori. ¡Ze milla emonio!

Andre Kaxilda.—(Gizon onek puskatu biar nau.)

Filemon.—Zuek, konfiteiko litxarrerikin agortuak zauzte; baña gu, baba zarra ta ardua naikua degula... (*Besuak zabalduaz*)

Andre Kaxilda.—¡Ai! ¡Musu emango dit! (*Arpegiya gordiaz*)

Filemon.—(*Tiragalia egiten du*)

Andre Kaxilda.—(Tiragaliak lasai eite'itu) Tira bada, exeri zaitia silla ortan.

Filemon.—Pernando ez al da etxen?

Andre Kaxilda.—Ez; zure billa jua da. Bidian galduko zifñaten.

Filemon.—¡Aparta dek motella!

Andre Kaxilda.—Aparta zaitia, bai. Ara an silla.

Fernando.—Errepente; orlako gauzik attu' re... (*Exertzen da*)

Andre Kaxilda.—¿Bakarrik etorri al zera?

Filemon.—Ez; nere seme, ta morroi gazte batekin.

Andre Kaxilda.—¿Non dira bada? Zure semia ezagutzeko zaleturik gaude.

Filemon.—Tramena baten sartu die, baxo erdi bat artzea. ¿Bakizu? Donostira etorri ezkerro, gazte batek orrenbeste bear du.

Andre Kaxilda.—Etxian ere emango geniyoten.

Filemon.—Etxeen, ba; emakumek ez dakizue tramenako satisfasioa zer den.

Andre Kaxilda.—Gizona, emen ere emango geniyoten bada; nai bazuten Rioja, nai bazuten Jerez; danetatik daukagu. Neri, etxian, guzitatik eukitzia gustatzen zait. Gaitz bat izanda're, euki etxian zerekin sendatu. Ez orain asi diran bezela edozein gauzetarako klinikara; azkazalak moztutzera're klinikara. Nik guziya etxian, eta etxian berri pakian egon; ez orain, Donostiyan ikusiko zenduben bezela, etxe guziyak goikuaz bera jiratzen, arratoi-zuloz betiak baleude bezela; emengo miradoria, ango tellatuetakoa tonturruntunak; ¿zer da ori? Kale guziyak arriz, egurrez ta zikinkeriz betiak daude; ta

gero tranbiak emendik, automobillak andik, zintzarri emengua, tronpeta bestekua, ta lokatza ta autsa baztar guzietakua. Orla, ¿nola erropari kontu egin? Beti esan izan det nik, eta zu're nerekin egongo zera: andre bat ondo jazteko, ez dala *Charmeuse*, *Crep de Chine* edo *Drap zibelin* bezelakorik, eta ala nai bada *Petit drap* ere bai; baña oraingo gona motzak, ixtarrak iya ageri dituztela, dalazko *falda godet* ori, naiz izan *toalet de gabardin*, berdin dit, zergatik zuk dakizun bezela, jantzi biar bada or dauzkagu *Velour brochée*, *Chantilly*, *Ratiné*...

Filemon.—(*Kaxilda izketan ari dan bitartian*) Eta... eta... eta... (*Azkenian*) ¿eta zimaurrez nola zeate?

Andre Kaxilda.—¡Jesus!

Filemon.—Gu *ploko* xamar gea, *ploko*.

Andre Kaxilda.—Baña, gizona, ez orlako zikinkeririk aitatu.

Filemon.—¿Zimaurre? ¿Zeuk ere besterik jate al dezue ba?

Andre Kaxilda.—(Nazkatu biar nau)

Filemon.—Azak eta letxuk, eta koliflorak, ¿zer die ba zimaurre baizik?

Andre Kaxilda.—Zaudez ixilik; aboko zultotik sartu biar nazu simaurra.

Filemon.—Sartzen degu guk makifña bat aldiz.

Fernando.—(*Atzetik sartubaz*) Banekiyen, banekiyen iritxiko ez nitzala. ¡Kaxo Filemon!

Filemon.—¡Kaxo laun zarre! (*Besarkada-tuaz*)

Fernando.—Mutill, len baño're bastuago ago.

Filemon.—I herriz piñao.

Fernando.—¡Bejondaikela!

Filemon.—¡Arraye pole! ¡Fernando aspal-dikoe!

Fernando.—Lertuko nak. Laga nazak; laga nazak. Lenago're ler egin diat ire billa... (*Exertzen da*) Ta guziya alperrik.

Andre Kaxilda.—Bai noski. Azkeneko ordu arte egon, eta gero dira larriyak.

Fernando.—Baña emakumia, zuk ez dirazu utzi.

Andre Kaxilda.—Zaude ixilik, lasai tzarra. (*Keñu egiten diyo Fernandori galtzak antolatzeke*)

Filemon.—Andre guzin erretolikek. (*Iku-sirik Kaxilda'ren keñuak eta Fernando'ren galtza-antolatzea, Filemon ere asten da galtzak antolatzen. Kaxilda'k egiten du gero*

keñu txamarrarengatik; eta Fernando'k eta Filemon'ek len bezela)

Andre Kaxilda.—(Altxiaz) ¡Ai! Gauza bat aztu zait. Banator beriala. (*Juaten da atzeko atetik*)

Filemon.—Zuaz ondo, etxeoandre.

Fernando.—¿Semia non dek?

Filemon.—¿Bernaiño? Or gelditu ttuk. Beriala emen dituzue. Baña, aizak, paper batzuk zuzendu bizkit, eta lagundu biar nak Bankura.

Fernando.—Bazkal-onduan juango gaituk.

Filemon.—Ez, motell; egin biar dana orain egin; gero bazkaltzen ere bazeukau lana franko; nik beintzat plateren aurrian jartzian... ¡Eup!

Fernando.—Baña, semia etorri arte...

Filemon.—¡Bernaiño! Ez dek galduko ez. Lagun ona zeukak. Motell, morroi gazte bat, Premiñ, aparta motell. Eta maite dit, semea balitz bezela. Esaten dit, eta neretzat, Premiñ ez dek morroya, semia dek.

Andre Kaxilda.—(Atzeko atetik sartzen da Kaxilda. Altxatzen da Fernando)

Filemon.—Bai, Premiñ nere semea dek.

Andre Kaxilda.—¿Premiñ, e?

Filemon.—Bai, etxeoandre.

Andre Kaxilda.—Beaz, ¿Premiñ du izena?

Filemon.—Bai, ala deitzen diogu.

Andre Kaxilda.—(Beste izen bat uste nuben.)

Filemon.—Mutill ona, zintzue, langillie, pizkorre, iaparta!

Fernando.—Juan biar badegu bada, obe diagu lenbailen.

Filemon.—Laster gera emen. Semee ta morye etorriko die, ta zuen kontu.

Andre Kaxilda.—Bai, ta bazkaitako ordurako, zure lagunak oi duben baño zuzenago etorri.

Fernando.—Beti badezu zer esana.

Filemon.—Emakumen erretolikek.

Andre Kaxilda.—Ordurako etorri bada ñe? (*Juaten dira irurek atzetik*)

VI

PILARTXO, ANDRE KAXILDA eta IÑAXI

Pilartxo.—(*Eskuiko atetik ateriaz*) Juan dira, ta ez dirate deitu. Bazekiten bada nere gelan nengola. Auxen da ixtilluba; senargaya izan eta nolakua dan ezin jakin.

Andre Kaxilda.—(*Atzeko atetik sartzen da andre Kaxilda*)

Pilartxo.—Ama, ñzergatik ez dirate deitu?

Andre Kaxilda.—Emen egon baziñan, Petrikillo'rengana juan biarko zendubelako. Ezur guziyak minberatuak laga nazki.

Pilartxo.—Baña ¿zeñek?

Andre Kaxilda. — Filemon'ek. Elefanti orrek. Semia ez al da orlakua izango.

Pilartxo.—¿Nere senargaya? Izango ez dan bezela.

Andre Kaxilda.—¿Zuk zer dakizu? Begira: orain etorriko da zure senargaya bere morroyarekin. ¿Entzun dezu? Ni orain, pixka batian, ezin egongo naiz emen, eta zuben gain lagatzen det. Aitakikua egin det nik, nere ezurrak dakite nola, ta zubez egin zazute gaztiena. Gero etorriko naiz.

Pilartxo.—Ongi da.

Andre Kaxilda.—Deitu zayozu bada Iñaxi'ri.

Pilartxo.—(Atetik) ¡Iñaxi!

Iñaxi.—(Barrutik) ¡Andria!

Andre Kaxilda.—Ori gizon kankallua. Orlakorik izaten zanik ere ez nuben uste.

Iñaxi.—(Atzeko atian azalduaz) ¿Zer nai zuten?

Andre Kaxilda.—Ai zazu: orain etorriko da Pilartxo'ren senargaya bere morroyarekin. Sukaldera dijuala morroya, ta bestia datorrela onera. Emen egongo da Pilartxo'

rekin ni etorri bitartian. Badakizute bada.
(*Juaten da atzetik*)

Iñaxi.—Bai andria. Ongi da. (*Ixil-aldia*)

Pilartxo.—Bazenekizu zer poxa dakatan senargaya ikusteko.

Iñaxi.—Nik aña ikusi ordurako aspertuko da.

Pilartxo.—¿Zenbat ikusi dituzu bada?

Iñaxi.—Ezin konta ala.

Pilartxo.—¡Emakumia!

Iñaxi.—¡Oi! ¿Zer uste du bada? Neskamiak, besterik ez degu izango, baña, senargayak: ixkin bakoitzian bat.

Pilartxo.—Aspertzeko're bada.

Iñaxi.—¡Bai zera! ¿Badaki zer dan gauza trixtia? Senargaya izaten oitu, ta batek utzi ta bestia billatu bitartian. ¡Zer trixtia dan! Eskerrak denbora gutxikua izaten dala.

Pilartxo.—(*Zintzarriya entzunaz*) ¡Emen dira! ¡Emen dira!

Iñaxi.—Banijua. (*Juaten da atzetik*)

VII

PILARTXO eta BERNAINO

Pilartxo.—(*Exeriyaz*) Orain dator. Dar, dar, nago.

Bernaiño.—(Agertuko da atzeko atian eta far irri goxoz, bertatik agur egiten du. *Pilartxo*'k farrez erantzuten diyo. Denbora pixka baten buruan, itzegiten du *Bernaiño*'k) ¡Ondo, e!

Pilartxo.—Txit ederki, ¿ta zu?

Bernaiño.—¡Bo! (*Aurreratubaz*) Polita neskatille, polita.

Pilartxo.—¿Ala arkitzen al nazu? zera... ¿Nola dezu izena?

Bernaiño.—¡Bernaiño!

Pilartxo.—¿Bernaiño? ¡Zer izen moñoña!

Bernaiño.—¿Eta zuk?

Pilartxo.—¿Nik? *Pilartxo.*

Bernaiño.—¡Eundokua! Geure ingurun, Patro, Jobita, Arrupiña, ta orlakok die.

Pilartxo.—¿Gustatzen al zaizkizu ango neskatxak?

Bernaiño.—Ez zeu ainbat. Polita neskatille, polita. (*Sugurrian biatzarekin ukuituaz*)

Pilartxo.—Tira, *Bernaiño*, exeri zaitia.

Bernaiño.—(*Bernaiño bere onduan exertzen da*) Zeure aldamenen.

Pilartxo.—¿Ezkontzen geranian, zer ekarriko didazu?

Bernaiño.—Bildotx bat. ¡Eundokua!

Pilartxo.—Ez... begira, Bernaiño, nik nai det *automobilla*.

Bernaiño.—Zuk nai dezun guziya.

Pilartxo.—¿Maiteko nazu?

Bernaiño.—¿Matte? Bai ene polita. ¿Eta zeuk?

Pilartxo.—Pixka bat.

Bernaiño.—Ez neuk ainbat.

Pilartxo.—¡Bernaiño!

Bernaiño.—¡Pilartxo!

VIII

LENGUAK eta ANDRE KAXILDA; gero
IÑAXI ta PREMIÑ

Andre Kaxilda.—(Atzetik sartuaz) ¿Emen al da gure gaztia?

Pilartxo.—Ama.

Bernaiño.—Etxekoandre. (*Pilartxo ta Bernaiño altxatzen dira*)

Andre Kaxilda.—Zer modu Premiñ?

Pilartxo.—Ez da Premiñ. Bernaiño da.

Bernaiño.—Bernaiño.

Andre Kaxilda.—¿Premiñ ez dala?

Biyak.—Bernaiño.

Andre Kaxilda.—Egin dezute ez egite-
kua. Aben eskubetan uzten dubenak gau-
za... (*Atzeko atetik ojuka*) ¡Iñaxi!

Bernaiño.—Etxekoandre: Bernaiño naiz.

Andre Kaxilda.—¿Premiñ nun da ba?

Bernaiño.—Sukalden.

Andre Kaxilda.—Abek txatxalak. Orain
egin didatena.

Iñaxi.—(*Atzetik sartuaz*) ¿Zer nai du?

Andre Kaxilda.—Txoro-flauta alena, ¿zer
egin didazu?

Bernaiño.—Baña etxekoandre...

Andre Kaxilda.—Eraman zazu au, emen-
dik sukaldera.

Iñaxi.—Neri esan didate...

Andre Kaxilda.—¿Zer esan biar zizuten!...

Pilartxo.—Ama, ¿ez al da bada au?

Bernaiño.—Bernaiño naiz, Bernaiño.

Andre Kaxilda.—Tira, tira, sukaldera,
aguro, aidian eraman zazute nere begiyen
aurretik.

Bernaiño.—Bernaiño naizela, Bernaiño.
(*Bultzaka botatzen dute kanpora*)

Andre Kaxilda.—(*Atetik*) Premiñ datorre-
la onera. Ia orain bere ordezt ikazkiña ekar-
tzen dezun.

Pilartxo.—¡Au lotsa!

Andre Kaxilda.—Baña zu, inora begira egon zera ez ezagutzeko?

Pilartxo.—iNik zer nekiyen bada! iAu lotsa!

Andre Kaxilda.—Filemon'ek esan dit bein baño geyagotan, bere semia Premiñ dala; baña zubei esan edo ez berdiñ da, ta orra azkenian.

Premiñ.—(*Premiñ atzetik. Bere ondoren Iñaxi*) iZer deu etxekoandre?

Andre Kaxilda.—iZu izango zera noski Premiñ?

Premiñ.—Bai andre.

Andre Kaxilda.—Filemon'ek esan badit neri.

Premiñ.—Ala esango zion bai.

Iñaxi.—iNeri nola esan dirate bada?

Andre Kaxilda.—iZuri zer esan biar zizuten! Au da au, Premiñ, auxe.

Premiñ.—Pulamentue ori da.

Andre Kaxilda.—Ara bada, emen dauka-gu zuretzat andregaya.

Premiñ.—iIiip! (*Kabriola bat egiñaz*)

Andre Kaxilda.—iGustatzen al zaizu?

Premiñ.—Errepente geo. iA, ze mirabe!

Pilartxo.—(Artu liteke au're.)

Andre Kaxilda.—Baña, begira Premiñ:

nere alabarekin ezkontzeko, pixka bat fiñdu biar dezu. Zu, mendijan oituba zaude, ta kalian ez da gauza bera.

Premiñ.—Agindu, etxeoandre, agindu.

Andre Kaxilda.—Bai; emendik aurrera deituko zera Fermintxo.

Pilartxo.—Fermintxo askoz ere politagua da.

Premiñ.—Konprome: Premintxo.

Irurak.—Fer-min-txo.

Premiñ.—Permintxo. Nai duene.

Andre Kaxilda.—Eta kendu lepoko pañuelo ori. (*Iñaxi'k kentzen diyo pañuelua*)

Pilartxo.—Eta boinaren ordez, beste txapel bat jarri.

Andre Kaxilda.—Ala da. Iñaxi, ekarri zazu lastozko txapela nagusiyaren gelatik.

Iñaxi.—Beriala. (*Iñaxi juaten da ezkerreko gelara*)

Andre Kaxilda.—Andre-gayarekin pasiatzera juateko-ta, apaindu egin biazu. ¡Nola denak begiratuko dizuten!...

Premiñ.—Geigo begiratuko die andregaieri; neuk beintzat ala egin izan dot.

Iñaxi.—*Iñaxi ezkerretik txapel lastozkoarekin*) Ara emen txapela.

Andre Kaxilda.—Kendu boina.

Pilartxo.—Jarri txapela.

Premiñ.—(Boina kendu ta jartzen du txapela oker-oker; bestiak zuzentzen diote batera ta bestera) ¡Dotoria geo, arraye pole!

Andre Kaxilda.—Zuzentxiago.

Iñaxi.—Atzeraxiago.

Pilartxo.—Aurreraxiago.

Premiñ.—Aita Santuak'e, ez dik olako bat izango. (Txapela okertuaz. Bestiak zuzendu)

Andre Kaxilda.—Zuzentxiago.

Iñaxi.—Atzeraxiago.

Pilartxo.—Aurreraxiago.

Andre Kaxilda.—Iñaxi: ekarri zazu nagusiyaren zira, ia nola ematen diyon.

Pilartxo.—Ederki asmatu du.

Iñaxi.—Ekarriko det. (Juaten da ezkerretik)

Andre Kaxilda.—Bai, orla zaude ondo.

Premiñ.—¿Orlako neskatillen aldamenen ondo ez? ¡Bai arraye pole!

Iñaxi. — (Ezkerretik zirarekin sartuaz)
Ara emen.

Andre Kaxilda.—Ekatzu.

Pilartxo.—Besua.

Iñaxi.—Eldu.

Andre Kaxilda.—Tira. (*Jazten dute iruren ortian. Oso parragarri gelditzen da*)

Iñaxi.—¿Zer diruri?

IX

LENGUAK eta FILEMON

Filemon.—(*Atzeko atetik sartuaz eta Premiñ ikusteakuan*) ¡Txori malue! Txorik izutzeko zomorroe diruik.

Andre Kaxilda.—Arrazoi du.

Filemon.—¡Au motille! Baserrin bezela kaleen e. ¡Aparta!

Pilartxo.—Oso itxusi dago.

Filemon. — Etxekoandre, sukaldea nua, egongo da zerbait kaxuelakara ta...

Andre Kaxilda. — Berialaxe bazkaitara guaz.

Filemon.—¿Eta bitarteko plakik?... ¡Au motille! ¡Aparta! ¡Aparta! (*Juaten da atzetik*)

Andre Kaxilda.—Au ez dago orla ondo.

Pilartxo.—Oso itxuski arkitzen det.

Iñaxi.—Oso parragarri.

Andre Kaxilda.—Alaxen da. Zuazte berakin nagusiyaren gelara, ia beste zerbait bi-llatzen dezuten.

Pilartxo.—Guazen bai.

Iñaxi.—Arkituko degu zer edo zer.

Premiñ.—¿Jun in biar al deu? (*Ezkerretik juaten dira Pilartxo ta Iñaxi. Premiñ gelditu azitzen du Kaxilda'k*)

Andre Kaxilda.—Itxogon zazu, pixka bat, Premiñ. Juango zera.

Premiñ.—¿Zer nai du, etxeakoandre?

Andre Kaxilda.—Gauza bat galdetu biar dizut. ¿Aitarekin zer modu izaten zera?

Premiñ.—¿Attakin? ¡Gaizki!

Andre Kaxilda.—¿Gaizki? ¿Zergatik?

Premiñ.—¿Zeatik? Mozkorre dalako.

Andre Kaxilda.—¿Mozkorra zure aita?

Premiñ.—Ene atta, bai: mozkorre ta jokalarie. Etxea ondau, baztar guziek ondau, familie ondau.

Andre Kaxilda.—Ezin liteke orrenbeste-raño.

Pilartxo.—(*Barrendik*) ¡Fermintxo!

Premiñ.—Bai andre, bai: mozkorre ta jokalarie. (*Juaten da ezkerretik*)

Andre Kaxilda.—Aitaren ta Semiaren... Aitutzeko guztiyak ez ditugu aitu oraindik. Leku onian sartzera nijuan nere alaba. Bañan, diruz leporaño zeudelakuan banegon ni; ta Fernando zoru orrek ere ez dit ezer

esan. Iya egin genduben ederra... Ta, Filemon, akulumendi zar ori're, egon ixil-ixilik, ia ziriya sartzen ote zigun. Aitu biar dizkit orreatik beriak eta bi.

Filemon.—(Atzetik, opill batian jakiya-*rekin*) Ori dek ori kozinarie. Etxekoandre: kozinari orren tripakik nañuzke nik.

Andre Kaxilda.—(Tripak ¿e? Ederrak daukazkit bada nik oraintxe). Adi zazu: itzegin biar degu. Ama naizen aldetik begiratu biar det zer ezkontza egiten duben alabak. Ez nago ni alaba edozein modu emateko.

Filemon.—¿Ze ba? ¿Zerbait berri al dozue?

Andre Kaxilda. — Bai, berri-berriya. Oraintxen esan didate, mozkorra ta jokalaria zerala, etxe guziya ondatu dezula.

Filemon.—iMilla deabru! ¿Nork esan dizu ori?

Andre Kaxilda.—Zure semiak.

Filemon.—¿Nere semeek? iItoko et! (*Juaten da atzetik*)

Andre Kaxilda.—¿E? ¿Nora dijua herriz gizon kaiku ori? Beste aragi-trontzoren bat sukaldian arrapatzera. Alperrik da, alperrik da. Gizon orrek itxura onik ez du. Ikusi detenerako iruditu zait. iMozkorra ta jokala-

riya! Aitaren ta Semiaren... ¿Zer uste du orrek? ¿Orretarako daukatala alaba? Ez, ez; azkar egin biar ditu emengo aldiyak. Azkar gero.

X

GUZIYAK

Filemon.—(*Atzetik, Bernaiño belarritik tiraka dakarrela*) Ator onera, petral maltzurre.

Bernaiño.—¡Ai! ¡ai! ¡ai!

Andre Kaxilda.—(¿Zertara dakar onera morroya?)

Filemon.—¿Zer esan diok atso oni?

Bernaiño.—Bernaiño naizela, Bernaiño.

Filemon.—¡Mozkorre, ni mozkorre!

Andre Kaxilda.—Mozkorra, bai, ta jokalarriya. Ala esan didate.

Filemon.—Gezurra diozu.

Pilartxo.—(*Ezkerretik sartzen dira Pilartxo, Iñaxi ta Premiñ*) Bazkal ondoan billatuko degu.

Andre Kaxilda.—¿Gezurra? Ara emen bera; orretzek esan dit. (*Premiñ'engatik*)

Filemon.—Ta len onek. (*Bernaiño'gatik*)

Andre Kaxilda.—Nik ez det ori aitatu're.

Filemon.—(*Premiñ'i*) ¿Ik esan al dek, ni mozkorre naizela?

Premiñ.—Gezurre da ori, gezurre da ori; galante gero.

Bernaiño.—Atso sorgiñ ori, gezurti utsa dok.

Pilartxo.—Nere amagatik ez gero orlako-rik esan, lotsagabia.

Filemon.—Ez dizut ematen ostiko bat, zapatatak ez zikintziatik. ¿Ni mozkorre? ¿ni mozkorre?

Andre Kaxilda.—Likixkeri alena. ¿ifloren etxian jartzeko ixkanbilla au al da?

Premiñ.—Gezurre, gezurre da.

Fernando.—(*Atzetik sartuaz*) ¡Zer dira zalaparta abek! (1)

Fernando.—(X) (2) Deabruak naramate-la, ni naiz etxe ontako nagusiya; ixiltzeko agintzen detanian ixildu egin bear da; zeladore bati deitu ta laster bigalduko zaituztet guziyak kaltzelara... kartzelara... kartzelara.

Iñaxi.—(X) (*Ez.*) (3) Ikusten ditu lotsagabe abek.

(1) Ezkerretik eskuira: Fernando, Iñaxi, Bernaiño, Andre Kaxilda, Filemon, Pilartxo, Premiñ.

(2) (X) daukatenak, guziok batian itzegin bear

(3) Ezkerrera begira.

(Es.) (4) Zuk jarri dezu salts'au, likixkeriya.

(Ez.) Eta berenak geyago, begira abei.

(Es.) Ijitoko-ume alena, likixkeriya.

(Ez.) Iñoren etxian jarri dutena.

(Es.) Zuaz emendik, asto tartera. Asto tartera, asto tartera, asto tartera.

Bernaiño.—(X) (Es.) Atso sorgiñ, ortz ustel, gezurtie.

(Ez.) Ta zu, berritsu, mari-mutille.

(Es.) Geukin arrotu nai dozu, ez orde.

(Ez.) Neska zirtzille, ematen baizut.

(Es.) Neu naiz bai, neure aiten semee.

(Ez.) Ta zu, berritsu, berritsu, berritsu.

Andre Kaxilda.—(X) (Ez.) Arkakuxu oni begira gero.

(Es.) Ta zu, akulumendiya, alena.

(Ez.) Zure ama izango zan sorgiña, ez ni.

(Es.) Ez nazu izutuko zure arrunkakin.

(Ez.) Arrotu ta aidian bigalduko zaitut.

(Es.) Ni señora izan ordia, señora, señora.

Filemon.—(X) (Ez.) ¿Mozkorre ni? ¡Zeu izango zera, zeu!

(Es.) Ama ta alaba, gezurtik bik, bai.

(4) Eskuira begira.

(Ez.) Eta zeu sorgiñ, atso motze ineu mozkorre!

(Es.) Neuri esan ori, begira gero sistriña.

(Ez.) ¿Izutu? ¡Erre ta kixkali zeu bezelakok!

(Es.) Zeuk esateko mozkorre naizela, mozkorre.

Pilartxo.—(X) (Ez.) Nere amagatik ori esan mandu orrek.

(Es.) ¿Ortara etorri al zerate etxia nastutzerazera?

(Ez.) Gezurtiyak zubek zerate, zubek, zubek.

(Es.) ¿Zergatik ixkanbill au jarri bada?

(Ez.) Euli-mandua alena, bijua emendik.

(Es.) Zubek zerate ijituak, ijituak, ijituak.

Premiñ.—(X) Orlako gezurrek esan, neuk attatu're ez ta. Gezurtik bazirela mundun lanekin, bañan orlakok ez nun uste. Geu ez gera ortara etorri, zeuk jarri dozue ixkanbilla. Jendek izatie orlakok, orlakok, orlakok. (*Filemon, bere seme ta morroiarekin ixkanbilla biziyan atzeko atetik juaten dira. Gañerakuak iruditegian aurreratzen dira*)

Andre Kaxilda.—Lagun ederra zeneukazun.

Pilartxo.—¿Iñoren etxian jartzeko ixkanbilla al da au?

Fernando.—Astu ori ez dakit nola txirtzillatu ez detan.

Filemon.—(*Filemon, bere seme ta morroiarekin sartzten da bat batetan eta ixkanbill berria sortzen dute. Guztiak batian itzegiten dute*) ¿Mozkorre ni? ¡Zeu izango zera! Atso motze, zeuk esateko neri mozkorre naizela, mozkorre, mozkorre.

Premiñ.—Orlako gezurrek esan. Zeuk jarri dozue ixkanbill au. Jendek izatie orlakov, orlakov, orlakov.

Bernaiño.—Atso sorgin, ortz ustel, gezur tie. Neu naiz bai, neure aiten semee. Ta zu, herritsu, herritsu, herritsu.

Fernando.—Deabruak naramatela; alde emendik, aguro gero; bestela kartzelara, kartzelara, kartzelara.

Andre Kaxilda.—Akulumendi alena, zuaz emendik, bestela juango zera kartzelara, kartzelara, kartzelara.

Pilartxo.—Euli-mando, ijito alenak; zuazte emendik, bestela kartzelara, kartzelara, kartzelara.

Iñaxi.—Lotsagabiak ez bestenak; alde emendik asto tartera, bestela kartzelara,

kartzelara. kartzelara. (*Atzeko atian guzi
yak karraxika ari diran bitartian jetxi beza-
te zapia*)

BUKAERA

TXIBIRIBIRI

Donostiko Teatro Zarrean estrañako aldiz aurkeztatua, 1918-ngo. Otsaillaren 11-an.

"Izarra" zeritzaion sortan argitaratua, 16'garren alean.

"Euskal-Esnalea"-n argitaratua, 1922-garren urtean.

(Biak argitaraldi bera dira.)

IRUDIGILLEAK

Xixili

Xatur

Esteban jauna

Andres jauna

Jaxinto

Jenaro

I

Iruditegiak gela apain bat aurkeztatuko du. Atzian ate aundi-xamar bat. Ezker-eskuitan ere atiak. Eskuian ixpillu bat. Maita alki politak eta abar.

Estalkia igotakoan, Esteban eta Andres, exerita, izketan.

ESTEBAN eta ANDRES

Esteban.—Alaxen da bada.

Andres.—Beraz, zure illoba Xixili, ¿emaztearen aldekoa da?

Esteban.—Bai. Gurasuak il eta umezurtz gelditu zanian, guregana ekarri genuen.

Andres.—¡Gaxua! Ondo nexka polita da.

Esteban.—Polita, azkarra, ona ta langillia. Bañan, alare, etzion iñork arpegira begiratzen. Diruik etzuela usandu zuten nonbait, eta jakiña dago: “txanponik ez bada. gaurko eguneko gizasementzat emakumerik ez dago”.

Andres.—Egiya diyozu.

Esteban.—Ontan, izan genduben Alberto' ren il-berriya. Alberto ori, nere emaztearen anaya zan; gizarajuak oso egos-gogorra izan biar zuben; ta, ala, bere berririk ez genduben izaten. Bizi zala're, doi-doi genekigun. Mancha alde artan, meatz, *mina* batzuen jabe zala bagenekigun, aberats zegola're bai...

Andres.—¡Izugarri!

Esteban.—Ta, beste ezertxo're ez. Il-berriyaren ondoren, zerbait adierazi ziguten, gure illoba Xixili'rentzat diru ondotxo utziya izan biar zubela... ta, iarrigarrizko gauza! guk baño len jakin zuten kanpua. Erri guzian zabaldu zan Xixili'ren aberastasuna.

Andres.—Ala gertatzen da.

Esteban.—Ta beriala asi ziran Xixili'ren ondotik. Ordu arte iñork begiratu ez baziyon, bazeukan ordubantxe nork begiratuba. Ezin txanda artu, gizona. Batek onla, bestiak ala... (*Imintziyuak egiñaz*) ¡A zer kanarreko miña eraman biar zuten batzuben! Eta, guztititik bazan: itxurazkuak, itxura txarrekuak, apañak, arlotiak, gaztiak... azkenian, agure zar bat ere bai, piper-morrua zirudien sudurrarekin, or egoten zan ia!... (*Imintziyuak egiñaz*) bere ortz ustelak erakutsiyaz.

Andres.—¡Ikustekua egongo zan!

Esteban.—Alarguna omen da, zortzi seme-alaben aita; ta izan gogua, kirten arrek, neskatxai begira egoteko.

Andres.—Bazeukan bada etxian zeri begiratuba.

Esteban.—Bai, bai; obe ziyon oliyo-txarruari ondo begiratu.

Andres.—Ez da gezurra.

Esteban.—Eskutitzez artzen zuben herriz Xixili'k... ¡Egunian sei errial ez genituben aski karteruentzako!

Andres.—Txinixten det.

Esteban.—Ta alako aukera izan emakumiak, eta, geyenetan gertatzen dan bezela, txarrenarekin gelditu zan.

Andres.—Gizona, gizona...

Esteban.—¡Txarrabeta jotzallia! ¡Biolintuerua! ¡Txokolaterua izan bazan alare!

Andres.—Bai, gizona.

Esteban.—Ikusi dezun mutillik txoruena. *Txibiribiri* deitzen diot nik. (*Altxiaz*) ¡Jostallu utsa da, geldirik ez dago une batian, beti dantzan dabilela diruri! ¡Kaxkariñik izan bada, orixen da kaxkarin jatorra!

Andres.—Eta neskatxak nai...

Esteban.—Txoraturik dago bere orrekin. Gure esanak alperrik izan dira. Ez dakit

nik, Xixili dan azkarrarekin, nola *xalta-pe-riko* orretzaz zaletu dan.

Andres.—Izan ere.

Esteban.—Ikusiko bazenitu biyak emeu panpantxo daudenian, zer txorakeriyak, zer ametsak... Uste dute osabak utzi ditubela ikaragarritzko dirutzak.

Andres.—Utzi ditu... utzi ditu...

Esteban.—Utzi biarko zituben. Etzituben noski berekin eramango, bañan...

Andres.—Larogei ta amar milla durotik gora izango dira.

Esteban.—Ez da auntzaren gaberdiko estula.

Andres.—Ez.

Esteban.—Bada, esan bezela, beren diru oyekin ametsetan zebiltzan; eta ontan iza-pla! zure eskutitza artu genduen, adieraziaz, osabaren ontasunaz Xixili'k jabetu nai bazuben, bere lengusu Jenaro'rekin ezkondu biarko zubela.

Andres.—Ala da.

Esteban.—Bai, ala izango da; bafia ¿zer egin biar du orain Xixili'k bere Txibiribiri orrekin?

Andres.—(*Altxiaz*) Gai ortan, argi ta garbi azaltzen da azken-naya. Alberto jaunaren ontasun guziyak, bere illoba Jenaro ta Xi-

xili'rentzat izan biar dute, abek biyak alkarrekin ezkontzen badira. Biyetako bat ukatuko balitz, ukatzen ez danarentzat izango dira ontasun guziyak.

Esteban.—¿Eta biyak ukatzen badira?

Andres.—Beartsu-etxetarako.

Esteban.—Bañan, ¿nola nai dezu Xixili'k Txibiribiri uztia?

Andres.—Utzi ditzala bada, osabaren ontasunak.

Esteban.—Eta... ¿nola nai dezu, osabaren ontasunak uztia, bere ayen ondotik badabil Txibiribiri dalako ori?

Andres.—Ez dauka bada beste biderik Gaur arratsaldeko labetan, Jenaro ta Xixili'k biyak, aitortu biar dute nere aurrian, osabaren aginduba betetzeko gertu dauden ala ez. Jenaro'k idatzi dit ordurako egongo dala. Zubek ikustera, uste det lenago etorriko dala.

Esteban.—Noski...

Andres.—Badakizu bada: labetarako dijuala Xixili nere etxera, ta an... deizkiyona esango du.

Esteban.—Ez da asmatzen errexa.

Andres.—Ori adieraztera etorri naiz, eta orrenbesterekin banua. (*Eskua eman eta atalderera juanaz*)

Esteban.—Arratsalde arte bada.

Andres.—Bai... (*Bat-batetan biurtuaz*) ¡A! Ta aztuta ni Joan. Emaztia gaxo daukazula esan didate.

Esteban.—Bai, baña, obeto dago.

Andres.—Atsegin det. (*Ate-aldera juanaz*)

Esteban.—Eskerrik asko.

Andres.—(*Berriro biurtuaz*) ¿Jeikiko da ordia?

Esteban.—Oraindik ez; baña bigar edo etzi jeikiko dala uste det.

Andres.—Nere eskumuñak emango dizkiozu.

Esteban.—Atsegin izango du. (*Biyak atzetik juaten dira*)

II

XIXILI, gero ESTEBAN. Azkenian JAXINTO

Xixili.—(*Eskuiko atetik ateriaz*) ¡Juan da! Gizon orrek bere izkera kinkili-kankalarekin, gure zorion guziya zarrataratu digu. Atsegintasunez beterik arkitzen nitzan, ta orra orain: Jaxinto utzi, edo bestela osabaren dirubak galdu biar. ¡A zer korapillua jarri didaten! Nik ezin det... ezin det. ¡Korapillo onek itoko nau! (*Oso tamal eser-tzen da*)

Esteban.—(Azaltzen da atzeko atetik, eta pixka bat Xixili'ri begira egon ondoren itzegiten du) Izkribaba izan da.

Xixili.—Badakit.

Esteban.—Labetan juan biar dezute bi lengusuak izkribauarengana, adieraztera bete nai dezuten edo ez osabaren agindua.

Xixili.—Iskribaba.

Esteban.—Iskribaba, bai.

Xixili.—Gizon orrek nastutu du guziya: ori da baztarrak saltsatzen dabillena.

Esteban.—Ori, ez...

Xixili.—¿Zer jakin biar du orrek norekin ezkondu nai detan? ¿Zer ikusteko du orrek?

Esteban.—Orrek, ezer ez. Zure osaba Alberto zanaren aginduba da.

Xixili.—(Altxiaz) Badute biyak ere alkarren antza. ¿Nola eman biar det Jenaro'rekin ezkontzeko itza? Beñere ikusi ez badet... Nolakua dan ere ez badakit...

Esteban.—Nik ere ez. Ortan biyak berdin gaude. Ez dakit txalburua edo karramarrua dan. Banekiyen Alberto'k illoba bat berekin zeukala. Banekiyen illoba orrek Jenaro izena zubela. Ta orra nik nekiyen eta dakit tan guziya.

Xixili.—¿Ta geyago gabe nik itz eman biar?

Esteban.—Ez; gaur etortzekua da Jenaro; ta iskribabarengana juan baño len, zu ikus-tera azalduko da noski.

Xixili.—Itxura ederrekoen bat izango da.

Esteban.—Ez da noski izango Txibiribiri bezin kilimakatzallia...

Xixili.—Txibiribiri, ez... ¡Jaxinto!

Esteban.—Ba... Jaxinto ta Txibiribiri dana bat. (*Jaxinto oso alai ta erdi dantzatuaz atian azaltzen da*) Ta... ara bera.

Jaxinto.—¡A! Esteban jauna; sartu ta zeñekin... eta zeñekin...

Esteban.—(*Jaxinto'ren dantzak ikusirik, bera ere dantzari ta abestuaz*) Eta norekin — Petra zikiñaren alabarekin.

Jaxinto.—¿E?

Esteban.—Or gelditzen zerate. Ni banua. (*Atzetik juaten da*)

III

XIXILI ta JAXINTO. Azkenian ESTEBAN JAUNA

Jaxinto.—(*Parrez*) Zure osaba alaitsu dago.

Xixili.—Ni baño alayago.

Jaxinto.—(Bat-batetan oso tamal gelditurik) Ni baño're bai. (Ixil-aldi baten ondoren) Gau guzian ez det loik egin, zure osabaren diruaz gogoraturik.

Xixili.—¿Diruak gogoratzen zaizkizu, e?

Jaxinto.—Bai; diruen punttaren punttan ikusten detalako nere Xixili zoragarriya.

Xixili.—Laister ez dezu bada ikusiko, ez Xixili'rik, eta ez dirurik.

Jaxinto.—¿Zergatik?

Xixili. — Jenaro'rekin ezkonduarazi naitelako.

Jaxinto.—¡Ez! ¡Ori ez! ¡Beñere ez! ¡Zu, neria izango zera!

Xixili.—Orduban ez dago dirurik.

Jaxinto.—Bai. Asmatu det nola.

Xixili.—¿Nola?

Jaxinto.—Zu etzera ukatuko. Jenaro biurtu-aziko degu ukatzera; ta orduban dirubak izango dira zuretzat... eta neretzat... biyentzat, eta... (Abestuz eta oin baten gañian jira emanaz) txibiribiri... biri... biri...

Xixili.—¡E! Etzazula itxura gabeko gauzarik esan.

Jaxinto.—Begira; zuk esango diyozu lengusuari: Jaxinto'tzaz txoratua nago ¿e? Jaxinto'ri diyotan naitasunak pil-pil egiteu

dit barren-barrenian ¿e? Jaxinto'ri emana daukat biyotza ¿e? Eta, nola Jenaro'k ez duben naiko biyotz gabeko emazterik, utziko zaitu, diruak izango dira guretzat, eta... (*Abestuaz eta oin baten gañian jira emanaz*) txibiribiri... biri... biri...

Xixili.—¿Zertarako esaten dituzu orrelako lerdengeriak?

Jaxinto.—Lerdengeriya dala uste dezu?

Xixili.—Bai; itxura gabeko gauza.

Jaxinto.—Orduban, beste zerbait... asma-tuko det... itxogon... Ara: zu zera, ikusi dan neskatzik ederrena, politena...

Xixili.—Milla bider esan didazu.

Jaxinto.—Ta beste milla bider ere esango dizut.

Xixili.—¿Ta zer?

Jaxinto.—Bada, orren polita izan arren, jarriko zaitugu emakumeik itxusiyena, zatarrena bezela; ta Jenaro'k zu ikustian ikararata itzul egingo du, ta... (*Abestuaz ta oin baten gañian jira emanaz*) txibiribiri... biri... biri...

Xixili.—Bañan... ¿nola liteke ori?

Jaxinto.—¿Ez degu bada egunero ikusten, padera baño itxusiyagoko neskatzak, ederrak, zoragarritzko panpoxak agertzen dira-

la? Bada, itxusiyakin polita egiten baño errexago da polita itxusitzen.

Xixili.—¿Nola ordia?

Jaxinto.—¿Nola izango da? ¿Ez dakizu bada, gaurko egunian diran pintatzalleik azkarrenak emakumiak dirala?

Xixili.—¡A! ¡Ez, ez! Ez dez pintaketik nai; iez, ez!

Jaxinto.—Bañan...

Xixili.—¿Arpegi guziya ondatzeko? ¡Ez orixe!

Jaxinto.—Orduban, beste zerbait... asma-tuko det... itxogon... Ara, bai: ¡korkoxa!

Xixili.—¿E?

Jaxinto.—Bai, jarriko dizugu bizkarrian korkoxa, ta Jenaro'k ikustian alde egingo du, ta... (*Abestuaz eta oin baten gañian jira emanaz*) txibiribiri... biri... biri...

Xixili.—Ori gaitz-erdi iduritzen zait.

Jaxinto.—Bai: ekarriko dizut soldauzkan ibiltzen nuen bizkar-zakela, beteko degu zartarrez, eta etortzen danian...

Esteban.—(*Atzetik, eskuban txartel bat duela*) ¡Jenaro...!

Xixili.—(*Oso ikaraturik*) ¡E!

Jaxinto.—¡Nola!

Esteban.—Jenaro'ren txartela.

Xixili.—Alare.

Jaxinto.—Izutu nau.

Esteban.—Ara zer dion: “Une onetan iri-txi naiz; soñekoz aldatu bezin laister, jua-go naiz beok, osaba-izebak agurtzera, ta nere lengusu Xixili ezagutzera.—*Jenaro.*”

Xixili.—Beriala emen da.

Jaxinto.—Bizkar-zakelen billa nua. (*Atzetik lasterka juaten da*)

IV

XIXILI ta ESTEBAN JAUNA. Gero JAXINTO.

Azkenian XATUR

Esteban.—¿Nora dijua ori muturrak austen?

Xixili.—¿Ori? Iskribabaren saltsak apurtzera.

Esteban.—Ez dago toki txarrian.

Xixili.—Orrek asmatu du bada.

Esteban.—¿Zer asmatu biar du! Orren buruban ez da jayotzen illia besterik eta.

Xixili.—Orren burutik sortu da bada.

Esteban.—¿Zer gero?

Xixili.—Bere soldaruzkako bizkar-zakelarekin jarriko dit txantzetako korkoxa, ta Jenaro'k egiya dala usteko du; ta zein ta lasai

ta galbaya izan leikien, ez du noski korkox-
dun emakume batekin ezkontzeko almenik
izango.

Esteban.—Ez dago gaizki.

Xixili.—Utziko nau beraz, eta orra nola
izkribauaren naspil eta saltsa guziyak apur-
tuko ditugun.

Esteban.—¿Badakizu, badakizu ez dagola
gero gaizki asmatuba...?

Xixili.—Galdetu dezayola orain izkriba-
bak bere amonari, norekin ezkondu nai du-
ben, ez neri.

Esteban.—Gezurra dirudi mutil txotxolo
orren burutik orrelako gauzik sortu biar zue-
nik.

Xixili.—Orra bada.

Esteban.—¡Nork esan ori asmatu biar zue-
la Txibiribiri'k!

Xixili.—Txibiribiri, ez; ¡Jaxinto!

Esteban.—Ondo da. Emendik aurrera dei-
tuko diyogu: (*ojuka*) ¡Jaxinto!

Jaxinto.—(*Bizkar-zakelarekin atzetik sar-
tuaz*) Emen naiz. Ona non dakarten... (*Es-
teban'ek artzen du bizkar-zakela*)

Xixili.—¡Ederki!

Esteban.—¡Ederki asmatuba!

Jaxinto.—Orain zatar batzuek sartu ta...

Xixili.—Beriala... (*Atzetik deika*) ¡Xatur!
Esteban.—Korkox jatorra gertatuko da.

Jaxinto.—Bai, ba... (*Atzetik deika*) ¡Xatur!

Xixili.—Izkribauari par eragingo diyogu orain.

Esteban.—Bai, noski. (*Xatur agertzen da atzian. Xixili beregana juaten da ta Esteban eta Jaxinto bizkar-zakelarekin gelditzen dira*)

Xixili.—¡A! ¡Xatur! Ekarri itzazu zatar batzubek...

Xatur.—Bai, andria. (*Xatur biurtzen da ta bizkar-zakelari eltzen dio. Orduan, Jaxinto, lasterka Xatur'engana juaten da*)

Jaxinto.—Zatar batzubek, zera...

Xatur.—Bai, jauna. (*Jaxinto bizkar-zakelugana biurtzen da ta Xixili lasterka Xatur'i juaten zaio*)

Xixili.—Ara, zera; izebaren gona zar batzubek edo...

Xatur.—Bai, andria. (*Len bezela Xixili bizkar-zakelagana ta Jaxinto Xatur'en aurre-ra. Baña, beti, lasterka*)

Jaxinto.—Bestela, osabaren galtza zarrak.

Xatur.—Bai, jauna.

Esteban.—(*Jaxinto'gana eta txamarratik*)

berari elduaz) ¡Ez! ¡Oyek ez! ¡Atzeko al-
dian arabakiyakin daude-ta!

Jaxinto.—Ez diyo ajolik orrengatik.

Esteban.—Zuri ez. ¡Ez detala nai!

Xixili.—Utzi. Nik neronek antolatuko det:
eta bizkarrian jarririk etorriko naiz.

Jaxinto.—¿Badakizu nola jartzen dan?

Xixili.—Bai, badakit.

Esteban.—Ez gero nere galtzik ukuitu.

Xixili.—Ez, ez. (*Xixili, bizkar-zakelare-
kin, ondotik Xatur duela, atzetik juaten da*)

V

ESTEBAN eta JAXINTO. Gero XIXILI.

Azkenian XATUR

Esteban.—¿Nola nai dezu bada, edozeñen
eskubetara juanta're, arabakitutako galtzak
uztia? Arrazoyarekin ta, tarratara ederrak
egingo lizkiateke zenbait mingañek.

Jaxinto.—Bañan ¿ederki asmatua dago, e?

Esteban.—Ori, bai. Etzera nik uste nu-
ben bezin kirtena. Ez nuben uste zure bu-
ruban orrenbeste gatz egongo zanik.

Jaxinto.—Larriya izan...

Esteban.—Larriya, bai, badaukazute bi-

yak ere, Alberto'ren azken-naya jakin dezuten ezkerero.

Jaxinto.—Bai, bañan, lasaituko gera.

Esteban.—Estutasun ederrak eraman ta gero.

Jaxinto.—Ori, bai.

Esteban.—Izan ere, Alberto'k egiteko ez da asko. Beti izan da orrelakoxe nolabaitekua. Etzan iñorekin ondo etortzen; senidiakin ere, doi-doiko adiskidetasun bat besterik etzuben; eta azkenian ere orra...

Jaxinto.—Azkeneko au da txarrena.

Esteban.—Zuretzat, bai.

Jaxinto.—Baita Xixili'rentzat ere.

Esteban.—Baitare: biyentzat.

Jaxinto.—Bañan, orain korkoxarekin...

Xixili.—(Atzetik korkoxarekin agertuaz)
Ona ni emen. ¿Ondo al nago?

Jaxinto.—¡Ederki!

Esteban.—Egiyetakua dirudi.

Jaxinto.—¡Ori da ori!

Esteban.—¡Ta asmatu!

Jaxinto.—(Xixili'ri) Jenaro etortzian, jarriko zera zu ixpillura begira...

Esteban.—Bai; ikusi ez bazendu bezela.

Jaxinto.—Ta Jenaro'k ikustian itzul egin-

go du, ta... (*Abestuaz eta oin baten gañian jira emanaz*) txibiribiri... biri... biri...

Xatur.—(*Atzian agertuaz*) Jenaro, jaun gaztia. (*Jaxinto ikaraturik oin baten gañian gelditzen da*)

Xixili.—¿Jenaro?

Esteban.—Datorrela. (*Xatur juaten da, ta Jaxinto berriz asten da atze aldera itzuli*)

Jaxinto.—Banua ni.

Esteban.—(*Jaxinto'ri txamarratik elduaz*) Ortik ez, gizona.

Xixili.—Sartu zaite gela ortan. (*Ezkerrian*)

Esteban.—Or...

Jaxinto.—Bai... bai... bai... (*Ezkerreko atetik lasterka juaten da*)

VI

XIXILI, ESTEBAN eta JENARO

(*Xixili arpegiya apaintzen bezela ixpillu-aurrian jartzen da. Esteban ezkerrian illobaren zai. Jenaro agertuko da atzian. Gazte oso apaña da. Bizkarrian korkoxa badu, bafña bizkar-gañian daukan beroki-jantziak gordetzen dio.*)

Jenaro.—Esteban jauna...

Esteban.—(*Eskua luzatuaz*) *¿Zer diozu, illoba?*

Jenaro.—Ondo, txit ondo, *¿ta beok?*

Esteban.—Ondo, Jainkoa'ri eskerrak. *Xixili'k etzaitu ikusi oraindik. Ara non dagon. (Gizaseme itxurakoa da gero...) (Jenaro'k beroki-jantzia eskuetan artzen du, ta Esteban'ek korkoxa ikusten dio) (¡E! ¡Korkoxa! ¡Onek ere bai! ¡Ederra egin diagu! ¡Au bai dala egiyetakua!) (Esteban'ek loteriko txartel bat Jenaro'ren korkoxian igurtziko du. Au biurtzen da, ta une berian Xixili ere bai, ta ikusirik lengusuaren korkoxa karraxi egiten du)*

Xixili.—(*¡Ai! ¡Korkoxa! ¡Nola ezkonduko naiz korkoxdun gizon batekin!*)

Esteban.—*Xixili, ona zure lengusu Jenaro.*

Jenaro.—(*Xixili'ri esku emanaz*) *¿Zer diozu?*

Xixili.—Ondo, *¿ta zu?*

Jenaro.—Txit ondo. Baneukan zu ezagutzeko gogua.

Xixili.—*Ikusten nazu bada...*

Jenaro.—*Bai...*

Xixili.—*Ikusten dezun bezela, emen ba-koitzak baditugu geren gauzak. (Korkoxarekin keñu egiñaz)*

Jenaro.—Bai, bakoitzak izaten ditugu...
(*Korkoxarekin keñu egiñaz*)

Esteban.—Bai, batzubek berenak, eta bestiak besterenak eta, guzitatik izaten da. (Onena bai egiyetakua dala. Polita da gero. Kosk egingo niyoke.)

Jenaro.—Jakingo dezu noski nere etorrra zergatik dan...

Esteban.—Jakiñen gafiñan nago.

Jenaro.—Osaba Alberto gizarajuak guri zigun maitetasun bizi ta sendoa, argi azaldu du bere azken-nayan.

Xixili.—(Itxura ederrian.)

Jenaro.—Bere ontasun guziyak guretzat utzi ditu, ta ordaintzat eskatzen diguna utsa da.

Esteban.—Ala esan liteke; bañan gauzak, aurretik eta atzetik begiratu biar dira; atziak ere baditu, baditu zer ikusiyak.

Xixili.—Begiratu besterik ez dago.

Jenaro.—Ikusten det bai, baña nik ere...

Esteban.—Bai, zuk ere izango dezu noski. (¡Auxen da korkox jatorra!)

Xixili.—Etorri zeranian etzenduben uste-ko nere gain orrelako gauzik ikusiko zendubenik.

Jenaro.—Egiya da.

Xixili.—Ta orain, ikusi ta gero... osaba-

ren agindubak arkituko dituzu onenian zalak dirala, astunak, ezin eramanak.

Jenaro.—Ori ez: osabaren agindubak beti izango dira neretzat atsegintsuak. Naizen guziya arri zor diyot; detan dena arena da...

Esteban.—(*Korkoxa erakutsiaz*) ¿Dena?

Jenaro.—Dena, bai; ta ala, osabaren aginteak gogotsu beteko ditut.

Xixili.—Bai, baña, nere bizkar... bada-kizu...

Jenaro.—Bai, nere bizkar bezela.

Xixili.—Gizonetan, ordia, ez da ainbeste begiratzen.

Jenaro.—Dan bezela dala, ez det ezerengatik utziko nere osabaren aginduba egin gabe. Bizi zala egiten nituben; il ta gero gogotsuago oraindik egingo ditut.

Xixili.—(Bere ortatik ez da aterako. ¡Au zorigaitza!) (*Ixil-aldi baten ondoren:*)

Jenaro.—(*Esteban'i*) Izeba ez det ikusi...

Esteban.—Izan ere. Aztu zitzaidan esatia: gaxo daukagu.

Jenaro.—¿Ez du, ordia, bildurtzeko gaitzik izango?

Esteban.—Ez; ta gañera obeto dago. Nai badezu, beragana lagunduko dizut; berak ere ikusi naiko zaitu-ta.

Jenaro.—Agur bat egin naiko nioke.

Esteban.—Guazen bada.

Jenaro.—Gero arte bada, Xixili; ta bada-kizu nere azken-itza; batera edo bestera. dan bezela dala, osabaren aginduba beteko det nik.

Esteban.—Emendik. (*Jenaro ta Esteban atzeko atetik juaten dira*)

VII

XIXILI ta JAXINTO

Xixili.—(*Oso tamal eseriaz*) Gure amets guziyak lurperatu dira. Ez da au zuzenduko dubenik. ¡Au zorigaitza!

Jaxinto.—(*Ezkerretik poliki-poliki ateriaz eta alde guzietara begira*) ¡Itzul egin al du?

Xixili.—Itzul egiteko dago bera're. (*Altxiaz*) ¡Ez dubela ezerengatik utziko bere osabaren aginduba egin gabe! Ala esan dit.

Jaxinto.—Baña... korkoxa ikusita...

Xixili.—¡Zer korkox! Berak nik baño aundiyagua du ta... Gañera, egiyetakua.

Jaxinto.—¡Galdubak gera!

Xixili.—Bai; ta guk gure bideari jarraitu biar diogu. Gelditu dedilla Jenaro bere korkox eta bere osabaren diruakin. Ez degu ezer ere biar.

Jaxinto.—Bai...

Xixili.—Naitasuna naikua degu.

Jaxinto.—Baña, diruba're biar degu.

Xixili.—¿Zertarako? Naitasunaren indarra aundiyagua da.

Jaxinto.—Dirurik gabe ordia, ez dago ezer.

Xixili.—Naitasuna izan ezkerro...

Jaxinto.—Diruba biar da lenbizi, diruba bigarren, diruba beti...

Xixili.—¿E? ¿Nola?

Jaxinto.—Bai, ba, diruba...

Xixili.—Baña, zu: ¿nere billa edo diruen billa zatoz?

Jaxinto.—Diruba lenbizi...

Xixili.—¡E! ¡Zuaz nere begiyen aurretik!

Jaxinto.—Naitasuna ere bai.

Xixili.—¡Etzaitut ikusi nai! ¡Alde emendik!

Jaxinto.—Naitasuna ta diruba...

Xixili.—Etzaitut ikusi nai, ez dizut ezer entzun nai, ez det zurekin ezer nai... ¡A!...
(*Korkoxa askatuaz*)

Jaxinto.—Baña, Xixili, ez nizun ori esan nai... ez da ori nik esan dizutana... Zera, Xixili, esan nai nizun, zera, alegiya...

Xixili.—¿Alegiya?

Jaxinto.—Bai, ba... zera...

Xixili.—(*Korkoxa Jaxinto'ri botiaz*) Tori alegiya. Ta orain, zuaz emendik eta etzaitia-la geyago nere begiyen aurrian jarri.

Jaxinto.—(*Korkoxa artubaz*) Banua; bafie apalago zaudenian etorriko naiz. (*Juaten da*)

VIII

XIXILI ta JENARO. Gero ESTEBAN.

Azkenian JAXINTO

Xixili.—Etzera etorriko ez. Nik esango diyot Xatur'i etxian sartzen ez uzteko... Jaxinto... zurekikua amaitu da. Diruagatik zebillen likixkeri ori. ¡Diruagatik! ¡Zein dollorak diran gizon batzuek! ¡Diruagatik...! Orain ez daukat beste alderdirik. Jenaro'rekin ezkondu biarko... Korkoxa du bafia, orrekin ezkondu ezkeru dirua ere izango det, eta dirua izan ezkeru... korkoxa ere artu liteke. Ta, gañerakuan, Jenaro, ondo gizaseme itxurakua ta atsegifia da.

Jenaro.—(*Jenaro sartzen da atzetik eta Xixili korkoxik gabe ikusten du*) Xixili: oso aldatuba arkitzen zaitut.

Xixili.—Bai, oso aldatuba. Gorputzez aldatuba, ta animaz ere bai. Osabaren aginduba betetzeko gertu nago.

Jenaro.—Atsegin aundia ematen didazu itz oyekin.

Xixili.—Eta bein aitortzen asi ezkerro, guzi-guziya esan nai dizut.

Jenaro.—Pozik entzungo dizut.

Xixili.—Gizon batek maite ninduela uste nuben, bañan, etzan ala, ez ninduen maite; diru usayian zebillen bakarrik. Aistiyan jakin det ori, ta aidian juan biar izan du.

Jenaro.—Ederki egin dezu.

Xixili.—Aren maitasuna egiya zalakuan, eta zuk uste arren, gezurrezko korkoxa jarri nuben... Azketsi, Jenaro...

Jenaro.—Ez daukat ezer azketsi biarrik; eta orain, zure aitortenaren ordañez, nik ere, beste aitorten bat egin biar dizut. Zu ikusi bezin laister, zutzaz txoraturik gelditu naiz. Ez diot begiratu zure gorputzeko korkoxari, ez; zure animako xamurtasuna, ez-titasuna, azaldu didate argiro zure begi mintzakorrak.

Xixili.—Eskerrik asko.

Jenaro.—Ez nekien ordia, onera etortzerakuan, ori gertatu zitekenik, eta... zure asmo bera izan nuben. Begira... (*Korkoxa atera, ta botiaz*)

Xixili.—¡Gezurrezko korkoxa!

Jenaro.—Zuria bezelakua.

Xixili.—Zorionez betetzen nazu.

Jenaro.—Ikusten dezun bezela, biyak, asieran, asmo bat izan degu; ta amaitzeakoan ere, asmo bera izan dezagun: alkarren zorriona egitia.

Xixili.—Ori izango da nere asmo bizi, sutsu, gartsua.

Esteban.—(*Atzetik sartuaz*) Ikusten detenez, alkar aitu dezute. (*Jenaro'ren bizkarrarian korkoxa eskubakin billatu nayan*)

Xixili.—Bai, osaba.

Jenaro.—Oso adixkide egin gera.

Esteban.—(Bañan, nun du onek...)

Xixili.—Ez beza billatu ez dagon tokiyan.

Esteban.—¿Gezurrezkua al zan onena ere?

Jenaro.—Bai, bada.

Xixili.—Neria bezela.

Esteban.—¡Ederra dek!

Xixili.—Ez dago emen korkoxik. Alkar aitu degu, ta osaba Alberto'ren aginduba betiaz, biyak ezkonduko gera.

Jenaro.—Ederki esana.

Esteban.—Bai, baña... ¿ta Txibiribiri?

Xixili.—Etzebillen ori nigatik; diruen ondotik zebillen.

Esteban.—Lenago're bagenekigun.

Xixili.—Aidian bigaldu det, eta ez bezayo utzi aurrera, etxian sartzen.

Esteban.—Etortzen bada txirtxillatuko det.

Jaxinto.—(*Atzian agertuaz*) Beste bat asmatu det...

Esteban.—Ez daukagu ezer asmatu biarrik, eta etorri zeran bidetik juan zintezke. Aidian gero.

Jaxinto.—Bañan...

Esteban.—Ospa emendikan.

Jaxinto.—¿Ta zer egin biar det nik orain?

Esteban.—¿Zer egin bear dezun?

Esteban, Xixili ta Jenaro.—(*Abestuaz eta oin baten gañian jira emanaz*) Txibiribiri... biri... biri...

EZKUTA-ZAPIA JEISTEN DA

SAN TOMAS'EKO FERIYA

(Jostirudia egintza bakarrean)

TORIBIO ALZAGA-K

IZKRIBATUA

Olagara aundiakiñ aurkeztatua Donostiko Biltoki
edo Teatro Lenendikoan, Abenduaren 30,an
1892'garren urtian.

Donostiyan:
Victoriano Iraola-ren moldizkidan
1 8 9 4

(Lenengo argitaraldiaren azala.)

EGINTARIAK

Ganbara	<i>Artola</i>
Migel Martiñ	<i>Uranga</i>
Txintzarri	<i>Arrieta</i>
Batista	<i>Casal</i>
Dondolo	<i>Olazabal</i>
On Jose Erramon	<i>Goiburu</i>
Salcedo	<i>Salcedo</i>

*Gauza saltzalliak, baserritarrak, arrantzaliak,
erriko jendia, ume koskorrak.*

Gertaera iruditzen da Donostiyan.

ON ANTONIO ARZAC JAUNARI

Beorrek esan ziran: Ia egiten nazun SAN TOMAS-EKO FERIYA aurtengo euskal festetako.

Txarra bada ere ona nun duben, beorri donkitzen diotana.

¡Zeñek egiñ lezayoken beorrek merezi bezelako FERIYA!

EGILLEAK

EGINTZA BAKARRA

Iruditegiak aurkeztatzen du Plaza berri edo Constitución-ekoa San Tomas'eko feri egunian. Atze aldian agertuko dira erriko etxeke arkubak. Eskuiko arkuban egongo da zabaldurik guardasol gorri aundi bat, eta jiran beste txikiyaguak sal-bentarako moduan; gizon bat egongo da aben kontuan. Ezkerreko arkuban azalduko da gizon bat eskopetak saltzen. Erdiko arkuban paperezko xantubak alde batian eta kalderak bestian, saltzalliak inguruan dirala. Aurreraxiago bi mai jostalluz betiak eta saltzalle bi andre. Aurrian, eskui aldera mai bat zintzarrri eta beste ganaduen gauzakiñ; ezkerre burni txurizko gauzen sal-lekua. Aurre aurrian ezkerretara txorixo sal-lekua, eta emakume bat saltzen. Baserritarrak etorriko dira noizian beifi, erosiko dute txorixua etu ogiya eta janaz juango dira.

LENBIZIKO IRUDIA

TXINTXARRI eta BATIXTA

(Burtiña altxatzeakuan pasatzen da eskuitik ezkerre jende pilla bat, arrabots aundia egiten dubela, txistu, tronpeta, atabal

eta ojuakiñ. Jendia ibilliko da feriya erosten. Txintxarri egongo da ganaru gauza saltzen eta Batixta burni txurizkuak.)

Txintxarri.—¿Au al da Donostiko feri sonatoa? Baletorke bat onera zerbait egiteko asmoan... Emen ez da saltzen txistu, tronpeta, atabal, eta orlako jostalluak baizik. Ondo esana da bai:

San Sebastian tarrapatapan,
mucho tamborra y poco pan.

Batixta.—Kaxkariñak, beti kaskariñ.

Txintxarri.—Jende txoro aben buruan zer ote dago? Ez dakit nik illia ere nola egoten dan. Bañan zeñen ederki egongo liraken zintzarri abetakoak... ogeina pezta pagatuko balizkirate.

(Ojuak soñu aundia)

BIGARREN IRUDIA

TXINTXARRI eta MIGEL MARTIÑ

(Migel Martiñ gelditzen da txintxarrien mai gañeko gauzari begira)

Txintxarri.—Aiskiria! Badakit zuk zer bear dezun, begiyan igarritzen dizut.

Migel Martiñ.—¿Zer bada?

Txintzarri.—Zintzarri abetako bat! (*Era-kutsiyaz*)

Migel Martiñ.—Zein naizela uste dezu ala?

Txintzarri.—Naiz izan Krisallueneko mayorazgoa zuretzat diñakok badirala iduritzen zait. Emango dizkizut merke merke!

Migel Martiñ.—Uste dezu zuk orlako trasteikiñ ibiltzen gerala gu?

Txintzarri.—Ez, sonbrallu kopaltakiñ ibiliko zerate!

Migel Martiñ.—Baita ere, entierrotara joateakoan.

Txintzarri.—Goazen, goazen; zer esan naidan konprenitu egin bear da. Gizon artean, gizonak bezela itz egin bear degu.

Migel Martiñ.—Ez dezu itxura aundirik. Zu ere donostiarra izango zera?

(*Batixta joaten da txorixo tokira, erosten du bat, eta janaz alde egiten du. Bere ordez uzten du mutill bat.*)

Txintzarri.—Bai zera! Nongoa izango naiz, Alegri'koa! Txintzarri-errikoa!

Migel Martiñ.—Ni ere ingurukoa naiz bada.

Txintzarri.—Egiya; nik noizbait ikusi zaitut. Zu, Alzo'koa edo, Billafranka'koa edo, Beasaingoa edo, Urrestill'goa edo...

Migel Martiñ.—Bai, edo Españikoa. Golpean asmatu dezu.

Txintzarri.—Nongoa zera bada?

Migel Martiñ.—Alzaga'koa, gizona.

Txintzarri.—A, bai!

Migel Martiñ.—Migel Joxe errementarien semea.

Txintzarri.—Ez da erremienta txarra! Ezagutzen det bai! Nik Alzagan jende asko ezagutzen det, Joxe Anthonio Mari Jibolin-trankenekoa ta, Pello Joxepe Mozkorrongienekoa ta, Praxku Anthonio Marixikiñenekoa ta...

Migel Martiñ.—Arrentxen alabakiñ ezkontzen naiz bada ni.

Txintzarri.—¿Garbi esateko, Marixikiñenakiñ?

Migel Martiñ.—Ezkondu egin bear genduela ta, arren osaba Ameriketatik etorriak emango ziola diru mordoxkaen bat eta, berak ere... ez dira gaizki diranak eta... txerri utsetan ere...

Txintzarri. — A! Marixikiñenian txerri kontuan ondo izan oi dira beti.

Migel Martiñ.—Bai, eta kanpantorre bat zure erriyentzat.

Txintzarri.—Zintzarriyak jartzeko? Ez lirake agertuko, ordia. Goazen, goazen, tra-

tuba egingo degu. Badakit nik feri billa etorri zerala eta konponduko gera.

Migel Martiñ.—Ez zaude zu konponikaldera txarra.

Txintzarri.—Itz egingo degu txurruptat eranaz. Kaxamiro (*Mutill koxkor bati eta uzten du bere kontu maya*) Kontu egiñ ni etorri bitartean; kantoiko tabernan izango gera.

IRUGARREN IRUDIA

LENGUAK eta GANBARA

Ganbara.—Kaxo Txintzarri! Zer dijua?

Txintzarri.—Gizon onek ezkondu egin bear duela eta, feri on baten desioa daukala ta...

Ganbara.—Bai, eta

San Tomaseko feriya
txorixua ta ogiya!

Aufa! Arratsa orduko amaikak arrapatuko du txorixua.

Txintzarri.—(*Txintxarriren mayera etortzen da baserritar bat, itz egiten du an dagon mutill koxkorakin, eta onek deitzen diyo Txintxarriri.*)

(*Ganbara eta Migel Martiñ'i.*)

Banator bereala.

(*Juaten da mayera eta gero alde egiten du baserritarrakiñ.*)

LAUGARREN IRUDIA

GANBARA eta MIGEL MARTIÑ

Ganbara.—Beraz ezkondu egiten zerala, e?

Migel Martiñ.—Ala diote.

Ganbara.—Ederki, ederki. Pentsatzen det nolakua izango dan zure andregaya.

Migel Martiñ.—Aragi eta ezurrezkoa.

Ganbara.—Bai baña, neska motz masail zuri gorri, sagar panpandoja bezelakuakiñ, eta bere ille luze gerriañokuakiñ...

Migel Martiñ.—Bestek bezelakoa.

Ganbara.—Bai zera; emenguak ibiltzen dira tximak muturrez aurrera dituztela, zaku bat igeltsu arpegiyan, eta gorputza onla ibilliyaz: *Me parece.*

Migel Martiñ.—Ez dakite beaz euskaraz?

Ganbara.—Euskeraz ez, baskuentzez.

Migel Martiñ.—Orra beaz.

Ganbara.—Eta zure andregayak izango du izen bat oso moñoñua; ara: Mikela Antonero, Joxepa Iñaxi ero, Manuela Jaxinta ero.....

Migel Martiñ.—Zer uste dezu zuk, emengo izenak berak ez direla goierrian?

Ganbara.—Emengo izenak? Ederki eman ere. Emen deitzen dira: Anxelmita, Rupertita, Mikelita.

Migel Martiñ.—Je! je! Donostiko kontuk!

Ganbara.—Zer uste zenduben bada, goyarrirrak bezelako bastuak dirala emengo neskatxa gaztiak? *Me parece!* ¿Eta oraifñ feriya egitera, e?

Migel Martiñ.—Ala zion beste orrek. Zu ere ¿arren erritarra izango zera?

Ganbara.—Bai zera, San Bizenteko koxketan jayua naiz eta.

Migel Martiñ.—Koxketan? Txorik bezela?

Ganbara.—Orrengatik gera bada donostiarrak orlako txoriyak.

Migel Martiñ.—Txorik ez! Txori-buruak!

Ganbara.—¿Eta feriya, txorixua ta ogiya egiteko asmua al dezu? Etzazula orlakorik egiñ, gizona, bestela azkeneko zezen iltzeko zaldi zar guztiyak jan aziko dizkizute, perra ta guzti.

Migel Martiñ.—Ja! ja!

Ganbara.—Bein batian ¿badakizu zuk, zer billatu nuben txorixo baten barrenen? ¡Pikadorien txapela!

Migel Martiñ.—Eta txorixoa, txapel ta guzti erreal batean? Ez da gaixti.

Ganbara.—Bai, fiya zaitia, eta zaldi pusken batian gertatzen bazaizu zezenen baten adarra, bein tripan arkitzian arrek emango dizkizu lanak. Ia nola egingo diyozun *kiebrua*. Txinixta nazu, obe dezu segurutik jokatu; nik esango dizut nun egin amaiketako ona. Atoz nerekiñ. Bestela *aber* zer sentimentuba izango luken zure andregai Joxpa-Akiña edo, Manuela-Iñaxi edo, Mikela-Antoni edo... (*Ontan pasatzen da jende pillabata eta nastutzen dituzte. Jendeak eramaten du aurrean Migel Martiñ eta gelditzen da bakarrik Ganbara*)

BOSTGARREN IRUDIA

GANBARA eta TXINTXARRI

(*Txintxarri azaltzen da; joaten da bere maiera eta andik Ganbararen aldamenara, jende pillak alde egiten duenian.*)

(*Txintxarri, erreparatu gabe. Migel Martiñ dalakuan.*)

Ganbara.—...edo Juana Bixenta edo, Mainaxi edo...

Txintxarri.—Zer diozu, gizona?

Ganbara.—Oi, zu al zera? Nun da base-rritar ura? (*Juaten da alde batera eta bestera eta ez du ikusten*) Ez da ageri. Ederra da! Ustez amaiketakua arren kontu egiteko asmua nuben ta, begira zayozu kirten orri. ¿Orain zeñek pagatuko dit neri? Ez dago bada erremeyorik, zuk pagatu biarko nazu. Eziñ onla geldituko naiz ni. Ez ta...

Txintzarri.—Gosea aztutzeko badet nik erremedioa. Eldu zayozu zintzarri abetako bati eta eragiñ gogotik.

Ganbara.—Ia saltzen ote dezun, e?

Txintzarri.—Ez al zaizu gustatzen?

Ganbara.—Bai, ori ondo prejitu ezkerro, ogi arranbarrillatubakin, tipula ta porru-perejill piska batekin, saltxa thantho bat, eta piper puntha batekin ia zer mokauba!... zikiñen gurdira botatzeko.

Txintzarri.—Bañan... nola utzi dezu alde egiten gizon ura? Trasteen erdik arri saltzeko asmoe neuken eta...

Ganbara.—Bai nik ere, amaiketakua egiteko asmua nuben bañan, zu ere arren antzeko kirtena zera ta orra nola utzi nazuten. Bañan ni alkate banitz...

Txintzarri.—Zer egingo zenduke?

Ganbara.—Zer? zer? Amaiketakua egiñ bapo, zu bezelako zekenari faoreik eskatu

gabe. Ematen nazu errabi bat nun, botako nuke nere buruba... zuzen, zuzen taberna-ra. Txibotik ez ordia!

SEIGARREN IRUDIA

GANBARA, DONDOLO eta TXINTXARRI
bere mayian

(*Sartzen da Dondolo txistu txiki batekin soñua juaz.*)

Ganbara.—Tranbia! tranbia! Bire! bire! estropozoik egiñ gabe; Oi Dondolo! *txorixoxo* jantziyan?

Dondolo.—Oraindik goiza dek.

Ganbara.—Mutill, ikusi atanian aize be te betian, txistu egiñaz eta iya arroka jua *xegara* biziyan, uste nikan... *txorixua* itzala.

Dondolo.—Bai, ta nik ikusi atanian jira ta bira Igeldoko faola bezela... lukainka itzala uste nikan.

Ganbara.—Musikero sartu al aiz?

Dondolo.—Mutill, papera falta, papera banu...

Ganbara.—Zer?

Dondolo.—Fumatu egingo nikek, tabakua badiat eta.

Ganbara.—Obe dek ez fumatu, jateko go-
guak aterako dizkik.

Dondolo.—Bestela ere ez diat nik jateko
gogorik izaten.

Ganbara.—Ez ta nik ere... lo nagonian.

Txintxarri.—Oi! jango luteke gero zin-
tzarri abetako bat eta oyeri begira!

Dondolo.—Mutill, ni, ondo jan eta ondo
eran ondorian, bi sardiñ zarrekiñ konforme
niok.

Ganbara.—Ni ez, ondo jan eta ondo eran
ondorian, bi sardiñ zar baño kafia nayago
diat, kopa bat ron eta zigarro puru aundi
batekiñ.

Dondolo.—Bai, ta urrengo egunian baba
zarra jan biar. Ez dik ondo ematen.

Ganbara.—Baba zarrak ez, ez dik ondo
ematen. Lanea ez al aiz juan?

Dondolo.—Etzaak neri jai egunian lan
egiteik gustatzen.

Ganbara.—San Tomasetan ez, jayetan bai.
A babua! Ez dakigula uste al dek elkarren
berri?

Dondolo.—Eta i zergatik ez aiz juan?

Ganbara.—Mutill, Coruña'ko madritar ba-
tzuben etxian ari gindukan lanian; eta ura
jende zekena! Atso sorgiñ alako bat, bi ala-
ba makarrosakiñ. ¡Pirpillin parpak jazteko

bai, ez langille gaxuai amaiketakorik emateko! ¡Coruña'ko jende ori galleguo dek, galleguak berak baño!

Dondolo.—Orlakuen etxian ez nitek nik lanik egingo!

Ganbara.—Bestetan ere, ez dek egiten eta! Gañera, beste gauza bat. Lanian ari gizona austen det krixtal txiki bat eta, nik sentimentuik asko ez nubela arrenak geyago! Ederrak aitu zizkikan bada.

Dondolo.—Gaizki egiña. Nik axkiratu atzeko aldameneko krixtala. autsiko niokan.

Ganbara.—Bat bakarra ukan eta! Salako ixpilluba!

Dondolo.—Oi! Orduban alde batetik autsizan beste aldera jira!

Ganbara.—Arrazoya dek. Atso arren mokua ikusteko ixpillu-atzeko aldia're naikua dek!

Eta azkenian esan ziaukan ez geyago etxe artara juateko ezertara. Ez ta nai're. Eta gaur ere beste alako etxeen batera juan biarko nikan...

Txintxarri.—Beste ixpilluen bat austera!

Ganbara.—Eta zer? ni San Tomas egunian amaiketakoik egiñ gabe gelditu? Ala'ek bai! Eta batere ez nak lanea juan!

Dondolo.—Ederki egiña!

Ganbara.—Guazemak oraiñ, amaiketakua egitera. Nik *konbidatze*'at eta ik pagatuko dek.

Txintzarri.—Ederki pentsatua!

Ganbara.—Zu ez, zuri gaitz egingo lizuke! ¡Gizonak bezela eran eta gero umiak bezela *txorixua* arrapatzeko? Ez! ez! obe dezuz zintzarriyari kontu egiñ eta erostunik ez badezu, zorrorek jarri kolkotik zintzilik.

Txintzarri.—Zintzarri abentzako ez da Donostian ganaduik faltako, beya ez bada ere izango da *astoen* bat.

Ganbara.—Astua? Zu ikusi ezkeror izutuko litzake. Guazen, Dondolo, guazen.

Dondolo.—Ago pixka bat, bandua aitzera etorri nak.

Ganbara.—Mutill, ago ixillik; *zedulak* artea juateko izango dek eta...

Dondolo.—Bai zera; euskeraz egitea zioztik.

Ganbara.—Euskeraz bandua?

Dondolo.—Bai, mutill; emendik aurrera ala izango emen dek beti.

Ganbara.—Ederki egia. Euskal-erriyan, euskera. Eta ez dakiyena, dijuala nai badu... Coruña'ra atso sorgiñ arrekin eta bere ixpillu zarpatsubakiñ.

(*Ixtante onetan aitzen da atabal errepika bat*)

Dondolo.—Oraintxen dek.

ZAZPIGARREN IRUDIA

LENGUAK, BATIXTA, SALCEDO

eta jende pilla

(*Azaltzen da Salcedo, eta dator ondoren jende pilla bat. Gelditzen da Salcedo erdi-yan txapela erantzirik eta jendia jira guz-tiyan*)

Ganbara.—Oi! Salcedo egietakua! Ez ge-ro emen Astigarran bezela, bandua euskeraz eta *Aviso al público* esan. Dana euskeraz.

Denak.—Dana! Dana!

Salcedo.—“Jakiñen gañian jartzen da erri ontako jendia...”

Ganbara.—Orla! Orla!

Salcedo.—“...galdu dala gaur goizian zal-di bat...”

Ganbara.—¿Zaldiya? Badakit nun izango dan. (*Saltzalliari*) Ekatzu aguro txorixo bat.

Salcedo.—“...zaldi bat urrezkua...”

Ganbara.—¿Urrezkua? (*Saltzalliari*) Or-

duban, ez, ez! Eskerrik asko. Ezagutuba dago borondatia.

Salcedo.—“...begi arri fiñezkuakiñ, eta dubela atzetik...”

Ganbara.—¿Gurdiya?

Salcedo.—Ez mutill. “Orratz bat, korbata lazuan ipintzeko...”

Ganbara.—A!

Salcedo.—“Erregutzen zayo billatzen duenari azaldu deiela Erriko etxian. An esango zayo nora eraman biar duben; eta jabiak emango dizka eun pezta...”

Ganbara.—Eun! San Tomas baño eun aundi yagua da ori!

Salcedo.—“Donostian abenduaren ogei ta batian mil ochocientos noventa y dos garrenian.”

Ganbara.—E! e! Eztu baliyo!

Dondolo.—Ala ezpanu artzen!

Ganbara.—Buelta! buelta! Euskeraz dana!

Salcedo.—(*Eziñ esan balu bezela*) “Milla eta zortzireun eta larogei ta amabi garrenian.”

Ganbara.—Ederki, Salcedo! Ederki!

Denak.—Orla! Orla!

(*Alde egiten du Salcedo'k eta ondoren*)

jende guztiyak. Gelditzen dira Ganbara, Txintxarri eta Batixta.) (1).

ZORTZIGARREN IRUDIA

GANBARA, TXINTXARRI eta BATIXTA

Ganbara.—*¡Eun pezta! Zeñek billatu lezaken!*

Txintxarri.—*A zer amaiketakoa, e?*

Ganbara.—*Ori da ori, persona biar dan bezelakua izatia. Coruña'ko marama ayek emango lituzteke! (Alde guztietara begira) Orlako jendientzat lana gustora egiten da. Bañan nun ote da zalditxo ura?*

(1) Salcedo au egietako gizona zan. Urte askoan bandoa berak egin zuan Donostiko kale-kantoyetan.

Naparroako Azagra-n jayoa zan 1828 urtean.

1854 urtean Donostiko "sereno" zan. 1858 urtean bandoa egiten asi zan, denbora berean aguazilla zalarik. 1865 urtean aguazilgoa utzi ta Erriko-etxeke atezai jarri zan, bandoa egiteari utzi gabe.

Asieran urtean 10 bando baziran ere, gero urtean 60 ziran, erriko murallak bota ta gero, Donostiko parte berrian ere egin, bear zualarik. oso bide luzean.

Bandoa irakurri ez-ezik, "deklamatu" egiten omen zuan, Zalburdiak ere geldi-arazten omen zituán, jendeak ondo entzun zezan. (Jose M.^a Donosty: "Salcedo, el Pregonero", "La Voz de España, 26-XI-1961.)

Txintzarri.—Zaude, deituko diogu (*Zintzarriyakin sofua egiaz*)

Ganbara.—Gizona, zaude ixilik; zezena dala usteko du ta igesi juango da. Emen ote dago? (*Mai burni-txurizko gauzak dauden lekua biribillatuaz eta dana saltsatuaz*)

Batixta.—Emen ez dago urrezko gauzarik. Denak zillarrezkoak dira.

Ganbara.—Zillarrak, bai; nausiyen ixillik morroyak egiñak.

Batixta.—Begira zaiozu, ez al diruite ala?

Ganbara.—Bai; oyek diruite:

Arranbarrillak

burruntziyak

krespi ta padera.

Ai nere salditxua

nora juan ote da!

Batixta.—Gizona, zaude geldirik, gauza denak naspillatu dituzu ta.

Ganbara.—Izan ere, nere esku zakarretan ibiltzia orlako gauza primoriak!... Gero ere neskazar mutur zikiñen baten atzaparretara juan biarko dute ta oni begira.

Batixta.—Ez al dezu uste, biar dala abillidadia orlako gauzak egiteko? Ez gero pentsa estranjeriyan ere egiten dala obeagokorik.

Ganbara.—Abillidadia? Pello-españek eta, bai denbora batian, barku zarretako kobre

puskakiñ arditak egiten zituztenian! Ura, ura abillidadia! Iru ixkiñakuak eta, laukuak eta, koxkadunak eta, mutur okerrak eta... gero arriyan arraskatu ta *lauraure*.

Txintzarri.—Ofizio orri eldu bear zenion zuk.

Ganbara.—Bai, baña aber eun pezta osatzeko zenbat ardit biar dian.

Batixta.—Len aña balio du bada oraiñ ere arditak.

Ganbara.—Ederki eman ere. *Aber* gu txikiyak giñala Krixtoenera juaten giñanian: "Aldi paten zigaluak eldiyak abanillo loiyak, beste eldiyak mixtuak eta poxporo'at faorez".

Txintzarri.—Gauza franko ardi batian.

Ganbara.—Bai, eta oraiñ orratz bat bakarreatik, eun pezta! Zaldi gixaxua nun ote dabill? Balekike ni billa nabillela, etorriko litzake bada.

Batixta.—Zure zai egongo da nonbait.

Ganbara.—Bai? Banua bada billa. (*El-tzen dio aspo bati eta ekentzen dio Batixtak. gero besteari eta ekentzen dio berriz, eta azkeniz laugarren aspuakiñ dijua korrika lurrari aspo emanaz*)

Nun zera? Nun zera?

Batixta.—(*Atzetik korrika, kentzen dio aspua*) Txoratu al zera gizona?

Txintxarri.—Donostiarrari galdetzen diozu ori?

Ganbara.—Oi? aizia're orren estimatuba al daukazu? Gobiernuak ez diyo oraindik kontribuziorik bota ta, zer dala uste du onek aizia! Ezagun du bai orrek ere salbo ta Goyerri aldekoa dala.

Batixta.—Zaldia biar badezu, zuaz zaldi tokira.

Ganbara.—Bai ta zu zure arranbarrillakiñ sukalde txokora.

Txintxarri.—Pozik joango litzake bera.

Ganbara.—Eta zu, zure trastiakiñ, ukullura.

BEDERATZIGARREN IRUDIA

LENGUAK eta ON JOSE ERRAMON
mutill koxkorakiñ

(*Pasatzen da jende pilla bat arrabots aundiakiñ, eta ondoren dator on Jose Erramon dituela atzetik bata bestiari eldurik iru ume koxkor.*)

Jose Erramon.—Aber, maitiak, eldu kontuz alkarri, jende tartian galdu gabe.

Ganbara.—Oi! Zer da au? Soka muturra?
(*Umeari*) Zein da zubetan zaldiya... edo iriya?

Umiak.—Ori (*On Jose Erramon erakutsiyaz*)

Ganbara.—Dena urria balitz zer mauka! Billatu biar det bada nun dan zaldi (y) ori.
(*Denak bultzatuaz eta danen erditik*) Alde! Bire! bire! (*Joaten da kanpora*)

AMARGARREN IRUDIA

TXINTXARRI, BATIXTA eta ON JOSE ERRAMON
mutill koxkorakiñ

Jose Erramon.—Jas! auxen da gizon alporja! Zer pasa zayo orri?

Txintxarri.—Badaki? Egin da bandua. galdu dala orratz bat zaldi baten figura urrezkua dubena, eta ura billatu nayan dabil.

Jose Erramon.—Bandua izan al da?

Batixta.—Bai, eta euskeraz.

Jose Erramon.—Abek txorakeriyak dabizkite beren euskerakiñ. Iñun egiten ez dan gauza. Ez Buenos Aires-en. Ez Montevideon.

Batixta.—Ez ta Inglatierran ere.

Txintzarri.—Ez ta Txinan ere. (Ara beste kaikuba!)

Jose Erramon.—(Erakutsiyaz *Txintzarri-ren* maya. *Onek jotzen du soñua zintzarri-yakiñ*) Maitia, ikusten zer gauza politak? Gustatzen?

Umiak.—Bai jauna.

Jose Erramon.—Aunditzian erosiko dizutet orlakua.

Txintzarri.—(Orain ere erosi zezakian beretzat.)

Jose Erramon.—(Agur txapelakiñ egiñaz) Eskarrik asko. (*Juaten da Batixta-ren maiera*) Begira, begira emengo arranbarrilla primoriak eta aspuak eta... Aunditzian erosiko dizkizutet orlakuak. (Agur txapelakiñ egiñaz) Eskarrik asko.

Batixta.—Buenos Aires-en usatuko da gauzak aunditzian erostia.

Txintzarri.—Bai, erropak bezela ez gero txikiyegi izatiatik.

Jose Erramon.—Maitiak, begira, begira zer farragarriya. (*Atzeko mai batetik jostallu bat erakutsiyaz*) Datorren San-Tomase-tan erosiko dizutet orlakua, e?

Umiak.—Bai jauna.

Jose Erramon.—(Tronpeta bat juaz) Eta au gustatzen?

Umiak.—Bai jauna.

Jose Erramon.—Erosiko dizutet bada... beste urte batian. (*Beste jostallu bat erakurtziyaz*) Au! au! au da gauza! Ja! ja! ja! Maitiak, polita al da? polita?

Umiak.—Bai jauna.

Jose Erramon.—Aber asmatzen dezuten zefiek erosiko dizkizuten... datorren urtian?

Umiak.—Beorrek.

Jose Erramon.—Ederki.

Umiak.—Eta aurten?

Jose Erramon.—Itxogon! Oraindik ez degu dana ikusi. (*Txistu aizezko-pelota-dun bati aize emanaz*) Au da au polita!

(*Txistu joka masail puztutubaz dagola ikusten du baserritar bat eskopeta sayatzen ari dala, eta izaturik asten da korrika batera eta bestera, eta jo ta botazen du lurre-ra Batixta-ren maya*)

Ai ama! ai ama! ai ama! Zer da ori! ai! ai! ai!

AMAIKAGARREN IRUDIA

LENGUAK eta GANBARA

Batixta.—Erotu egiñ al da?

Txintxarri.—Zer pasa zaio?

Batixta.—Merezi luke ebañ-ebañ egitia!

Txintzarri.—Ez, aunditzian.

Batixta.—Altxa bedi aguro!

Jose Erramon.—E! Juan al da?

Batixta.—Zer Juan, eta zer Pedro, altxa aguro. Buenos Aires-en egiten al da onla?

Ganbara.—(Sartubaz) Zer da?

Jose Erramon.—Izutu nau gizon orrek.

Ganbara.—Gaxua, mumua egiñ al diyo?

Jose Erramon.—Gizon iltzeko erremienta oyekiñ ez luteke laja biar ibiltzen.

Txintzarri.—Bai, txoria dalakoan tirako diote.

Ganbara.—A zer pirripiyua!

Batixta.—Gauza danak ondatu dizkit.

Txintzarri.—(On Jose Erramon-i) Bañan, ez al du pentsatzen eskopeta oiek utsak dau dela?

Jose Erramon.—Utsak egonagatik ez naiz ni fiyatzen.

Ganbara.—Bai, arrazoya du; zergatik beorri bezelako bati tira ezkerro, uts egiñatik nun ero an jo biar.

Batixta.—Egiñ diran planta! Zeñek pagatuko dit oraiñ nik detan kaltia?

Txintzarri.—Jaun onek; bañan oraiñ ez... datorren urtian.

Batixta.—Umiari feriya urrengo urteako agintzen diyoten bezela.

Ganbara.—¿Datorren urteako utzi al du feriya erosteko? Badakit zergatik. Gustokoik billatu ez dubelako. ¿Ala?

Jose Erramon.—Ori da bada. Gustoko gauza danak datorren urteako modukuak!

Ganbara.—Nik asmatuko det beorrek nolako feriya egiñ nai diyoten. (Amaiketa-kuentzat diña emango al dit.) (*Paper puska batekiñ egiten du txori bat*) Ara. (*Emanaz*)

Jose Erramon.—Bai, oso polita da! (*Eman ten diyo ume bati*)

Ganbara.—(Banekiyen, baliyuaz gustatu ta). (*Bestia egiñaz*)

Jose Erramon.—Zer abillidadia daukarrren.

Ganbara.—Izugarriya! Baña zaldi urrezko bat asmatu nai nuben eta eziñ iñola ere.

Jose Erramon.—Ori gaitza da. Nik ikusi det...

Ganbara.—Nun? nun? Nun ikusi du? Aguro!

Jose Erramon.—Nun? Buenos Aires-en.

Ganbara.—Tokitara juan da orduban!

Jose Erramon.—Bañan ederra zan!

Ganbara.—Ala omen da, bai. Begi arri-
-fiñezkuakiñ eta...

Jose Erramon.—Ez da emen alakoik ikusi.

Ganbara.—Emen galdu da bada.

Jose Erramon.—Bai zera.

Ganbara.—Guazen, ¿beorrek noiz ikusi
du?

Jose Erramon.—Noiz?... zaude... orain
dala...

Ganbara.—¿Ordu erdi bat?

Jose Erramon.—Ez; izango da... amabost
urte.

Ganbara.—Kontu frexkuakiñ dabill ordu-
ban. (*Bestia emanaz*) Ara bestia.

Jose Erramon.—Gaiñ gañekua. (*Ematen
diyo beste umiari*) Feriya ederra dago!
Zenbat gauza, e? (*Atzian dagon guardasol
gorri aundi bati begira*) Zer da araku ar-
tan dagon gauza gorri (y) ura?

Ganbara.—Ura? Erlojuba.

Jose Erramon.—Oi? Ez du bada marka-
tzen.

Ganbara.—Eletrikua da ta.

Jose Erramon.—A!

Ganbara.—(Zer emango ote dit? Galde-
tzen badu, berak nai dubena esan biarko, ala

geyago emango du). Ara azkenekua. (*Emanaz*)

Jose Erramon.—Ederki, ederki! (*Ematen diyote*) Tira, maitiak; oraiñ, zer esaten da?

Umiak.—Eskarrik asko!

Jose Erramon.—Orla! (*Txalekuari tiratzen diyo ondo jartzeko*)

Ganbara.—(Zerbait emango dit.)

Jose Erramon.—(*Txapelakiñ agur egiaz*) Ondo geldi bedi.

Ganbara. — Beorrek emanakiñ geldituko naiz ondo!

Txintzarri.—Aunditzian etorri berriz!

Batixta.—Bai, ta juango da ankaz gora!

Jose Erramon.—Jas! au jende nabarbera! (*Alde egiten du bere umiakiñ*)

Ganbara.—Au're Coruña'kua ote da? Jakiñ izan banu, txoriyen ordez otsua egingo niyon! ¡Orrenbeste lan egiñ ta, amaiketakoik gabe gelditu biar ote det?

Txintzarri.—Lanea jua baziñan, gutxiago nekatu eta onezkero amaiketakoentzat diña atera zenduan.

AMABIGARREN IRUDIA

TXINTXARRI, BATIXTA, GANBARA eta
MIGEL MARTIÑ

(Migel Martiñ azaltzen da, bi besuak patrikeran sartuta; eltzen dio Ganbara'k beso batetik eta berekiñ nai du eraman tabernara)

Ganbara.—Kaxo, aixkiria, zure billa nebillen alde guztitik.

Txintxarri.—*(Eltzen dio beste eskutik eta nai du eraman bere sal-lekura)* Non zabil-tza, gizona?

(Batek tiratzen dio alde batera eta bestiak bestera, eta Migel Martiñ ezin itzul egiñaz.)

Ganbara.—Amaiketakua egiteko zure zai negon!

Txintxarri.—Atoz feriya erostera!

Ganbara.—Guazen, lagun zarra, guazen!

Migel Martiñ.—Utzi nazute pakean!

Txintxarri.—Nik esango dizut zer bear dezun!

Ganbara.—Atoz nerekiñ, erri!

Migel Martiñ.—Baña...

Txintxarri.—Txinista nazu, gizona!

(Migel Martiñ batera eta bestera tiraka dabil-tela, ateratzen du esku bat patriketa-

tik eta erortzen zaio urrezko orratza. Ikusten du Ganbarak eta botatzen du gañera txapela)

Ganbara.—Ama Birjiña kolkua zabal ni bakarrik parte!

Migel Martiñ.—(*Txintxarri'ri*) Utzi nazu pakean.

Txintxarri.—Bañan gizona. txinixta nazu.

Ganbara.—(*Orratza eskubetan artuta*) Berbera! Nola billatuko nuben bada, galope biziyan dijua ta! (*Saltoka eta dantzan*) Aupa! Zuaz orrekiñ nai badezu! (*Migel Martiñ'i*) Ez det nik iñoren biarrik! (*Erakutsiyaz orratza*) Billatu det biar nubena!

Migel Martiñ.—Ekatzu ori, nereea da ta.

Ganbara.—Oi! Orrena omen da.

Migel Martiñ.—Kale kantoi batean billatu det, eta andre gayeri feria egiteko dauket.

Ganbara.—Je! je! Billatu dubelako onena omen da: etxearuntzian billatuko dituzu mendiya franko, zuriak dirala ta sartu itzazu patrikeran eta eraman zaizkazu andre gayari! Zuk billatu badezu, nik ere billatu egin det!

Migel Martiñ.—Bañan zuk badakizu neri erori zaitala, eta nik ez zeñek galdu duan.

Txintxarri.—Nik esango dizut nora era-

man. Emango dizkizute eun pezta, eta gero etorriko zera feriya egitera, e?

Ganbara.—Ez kasoik egiñ orri; ori marrajua da ta. Biyak konponduko gera! Ala laun zarra! Zure aita ta nere ama gurasuak ziran eta zu ta ni lengusubak!

Migel Martiñ.—Bai, baña ekatzu ori.

Txintxarri.—Emaiozu aguro edo deituko diot aguazill bati.

Ganbara.—Emango diyot, ez pentsa zu bezelako zangurruba naizela. (*Migel Martiñ-i*) Orrek ez daki emengo berri. Nik billatuko det nun dan jabia eta gero konponduko gera... eun peztak ematen banazkizu.

Txintxarri.—Ikusten dezu? (*Migel Martiñ-i*)

Ganbara.—(Ikusi bai, ez dakazki ikusirik.) Ematen banazkizu... partitzeko.

Migel Martiñ.—Nai dezun bezela, bañan baezpada ere ekatzu neri.

AZKENEKO IRUDIA

GANBARA, MIGEL MARTIÑ, TXINTXARRI,
BATIXTA eta DONDOLO

Dondolo.—Kaxo Ganbara, sugur-peko logalia juan al zaik?

Ganbara.—(*Migel Martiñ'i, Dondolori ka-*

soik egiñ gabe) Bai, gizona, bai; emango dizut, ez iruki bildurrik!

Dondolo.—(*Ganbara'ri*) ¡Ez dek kasoik egiten, e?

Ganbara.—Ez nak ni kasogillia eta ez potogillia're, eta i bezelako arlotiari ez ziuat nik begiratzen ere.

Txintxarri.—Aberastu dan ontan...

Dondolo.—Zer da bada? Zelaore sartu al aiz, eta orain bastoya artu ta pasiatzera?

Batixta.—Ez, urrezko orratza topatu du.

Dondolo.—Oi! bai al dakik nungua dan?

Ganbara.—Ez ta nai're jakiñ. Ik ere partia nai al dek?

Migel Martiñ.—Au gizon ondraua. (*Dondolo'rengatik*)

Dondolo.—Au ere Coruña'ko obia izango litzake aberatsa balitz.

Ganbara.—Inbiriya?... Arraska la tximi niya!

Dondolo.—Ez mutill, ez gaituk orratzak jan ta bizi.

Migel Martiñ.—(*Ganbara'ri*) Ekatzu orratza ta goazen. (*Dondolo'ri*) Nongoa dala diozu?

Dondolo.—Oraiñ egondu naiz Salcedo'ekiñ,

eta esan dit ala: Apaiz-kalian, amalaugareneko lumeruan lenbiziko bizitzan, Coruña'ko famili batena. (*Dondolo izketan ari dan bitartian Ganbara'k egiten diyo keñu ez esateko, parte egingo dutela. Bukatzen dubenian gelditzen da arriturik*)

Ganbara.—E? (Ederra da.)

Txintxarri.—Orain zer diozu Coruña'ko famili orrengatikan? Orla itz egiten dezute zuek, zer esaten dezuten ez dakizutela!

(*Ganbara'k botatzen du orratza lurrera.*)

Migel Martiñ.—Gizona, nola bota dezu? (*Jasuaz*)

Ganbara.—Ez det batere nai. (Juaten baina, ixpilluben orde z geldituko dizkiate eun peztak eta.)

Migel Martiñ.—Zaude nai ez badezu.

Ganbara.—Baña eman gero neri nere partia!

Migel Martiñ.—Ez bazatoz, batere ez!

Txintxarri.—Ederki egiña!

Ganbara.—Orain bai *poto* egiñ detala.

Migel Martiñ.—(*Dondolo'ri*) Zu, atoz nerekiñ, erakutsi nazu non dan, eta bear dana emango dizut.

Dondolo.—Nai dezun bezela.

Ganbara. — Amaiketakorik gabe gelditu

biar ote det azkenian? Dondolo, lagun al aiz?

Dondolo.—Ez ik merezi.

Ganbara.—Busti zagon orduban!

Dondolo.—Iri egiñ biar litzaikek ik bes-tiari egiten diyotekana. Bañan ez nak i be-zelakua ta konbidatze'at amaiketakora.

Ganbara.—Bapo erri! Ori dek, ori, lagun zarra izatia. Juango gaituk Goñi-enea, e?

Dondolo.—Ez, nik egingo diyat feriya: txorixua ta ogiya.

Ganbara.—Ez, nayago diat nik...

Dondolo.—Eta nai ez badek batere ez.

Ganbara.—Orduban, ematen.

Dondolo.—(*Saltzalliar*) Txorixo bat onen-tzat. (*Pagatzen du*)

Ganbara.—Kosta ala kosta. Au gizonen paradoria!

Txintzarri.—(*Migel Martiñ'i*) Etorri gero feriya eroatera.

Migel Martiñ.—Erosiya det bear detan gu-ziya.

Txintzarri. — Bejon daizula! Saltzalliak izango gera Donostitik feri geiena eramango degunak.

Batixta.—Ekarritako geienak.

Dondolo.—Bai, beti ori esan, bañan da-
torren urtian ere etorri ostera.

Ganbara.—(*Txorixua artu ta janaz*)

Esanak esan, ez dago bada aiñ txarra.

Ez, ez! Jan liteke bai.

Ondo goxua dago!

Amaika badago pozik kosk elduko liyo-
kena!

!Me parece!

Ez du gero nai duben guziyak *txorixua*
arrapatzen!

Falta bat bakarra du
amaiketako onek,
falta egiten diyo
bixigarri batek.

Bañan izan ezkerro...
txaluak ugari,
ez da obiagorik
oraindik ikusi.

Usariyo zarra da,
ez oraiñ jarriya,
len bezela nai degu,
ez gauza berriya,
SAN TOMAS-EKO FERIYA
TXORIXUA TA OGIYA.

BUKAERA

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

- 1.—R. Artola
SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste ber-
tso asko. (Aitua).
- 2.—M. Soroa
**GABÓN, AU OSTATUBAI, ANTON KAI-
KU.**
- 3.—F. Apalategui, S. I.
EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
- 4.—Pepe Artola
USTEZ LAGUN DETAN ta beste bertso
asko.
- 5.—P. Urruzuno
EUSKALERRITIK ZERURA ta beste bertso
asko.
- 6.—Toribio Alzaga
RAMUNTZO.
- 7.—Ramos Azkarate
GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
- 8.—Antero Apaolaza
PATXIKO TXERREN
- 9.—Bitoriano Iraola
OROITZAK ta beste ipui asko.
- 10.—Bertsolariak
ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA
(1962).

- 11.—Piarres Larzabal
BORDAXURI.
- 12.—Bilintx
BERTSO TA LAN GUZIAK.
- 13.—Mariano Izeta
DIRUA GALGARRI.
- 14.—Piarres Larzabal
IRU ZIREN
- 15.—Bertsolariak
EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
- 16.—Alfonso M.^a Zabala
GABON GAU BAT ta beste ipui asko.
- 17.—Antonio M.^a Labayen
MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19.—Antonio Zavala, S. I.
TXIRRITA (Bizitza ta bat bateko bertsoak).
- 20.—Franzisko Goñi, S. I.
LURDESKO GERTAERAK.
- 21.—Piarres Larzabal
HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.
- 22.—Bertsolariak
**BERTSOLARIEN TXAPELKETA
(30-XII-1962).**
- 23.—**AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.**
- 24.—Fermin Imaz
BERTSO GUZIAK.
- 25.—A. P. Iturriaga
JOLASAK.

- 26.—Alfonso M.^a Zabala.—A. Larraitz.—Juan Mir
PERIYAREN ZALAPARTAK. — Melitona'
ren bi senarrak. — Mendibe'tarren larri-
yak. — Utzi bearko! — Gizon bikañak.
- 27.—Bertsolariak
AZPEITIKO PREMIYUAREN BERTSOAK.
- 28.—Bizenta Moguel
IPIU ONAK.
- 29.—Toribio Alzaga
BURRUNTZIYA. — Bernaiño'ren larriyak.
Txibiribiri. — San Tomas'eko feriya.



1027913

JB-903

